

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

1/2017 Foru Araua, otsailaren 8koa, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunarena, herritarren parte-hartzearena eta gobernu onarena

Arabako Batzar Nagusiek, 2017ko otsailaren 8an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

1/2017 Foru Araua, otsailaren 8koa, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunarena, herritarren parte-hartzearena eta gobernu onarena.

ZIOEN AZALPENA

Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoan abian jarri da gobernantza eredu berria ezartzeko eta finkatzeko prozesua. Prozesu honen helburua gizarteak, ekonomiak eta erakundeek aurrera egitea da, aldi berean gobernuaren jardunaren, gizarte zibilaren eta jarduera ekonomikoaren arteko oreka sustatzen dela. Gure asmoa herritarren subiranotasunaren eta parte hartzeko eskubide demokratikoaren printzipioak sendotzea da; horretarako, administrazioaren jarduna eta antolamendua, batetik, eta haren eta herritarren arteko elkarreragina, bestetik, ulertzeko formula berriak ezarriko ditugu, pertsonen lehentasuna emanik eta gobernu aldi berean partaide eta erantzule dela.

Aldaketa honetarako ezinbestekoa da foru sektore publikoa irekiagoa izatea eta abegitsuago aritzea herritarrekin, eta arduratsuago eta eraginkortasun handiagoarekin ere bai, ezaugarri horiek guztiak funtsezkoak baitira gobernu demokratikorako, gizartearen egonkortasunerako eta ekonomiaren garapenerako. Horrenbestez, eskuarki onartu ohi diren gobernantza irizpide batzuk ezarri behar dira: plangintza eta ebaluazioa, gardentasuna eta parte hartzea; prozesu eta dinamika hauei esker herritarren subiranotasuna eta gobernu eta administrazio onerako eskubidea bermatuko dira.

Politika publikoen ebaluazioak, gardentasunak eta herritarrek gai publikoetan parte hartzeak eratzten duten triangelu kontzeptualaren garapenaren bidez lortu nahi da herritarrak informatuta egotea, parte hartzeko gogoia edukitzea eta horretan buru-belarri aritzea, eta erantzukizunetan dagokien zatia onartzea, abiaburutzat hartuta printzipio horiek deusezak direla banaka, hau da, bakoitzak ez duela ezertarako balio besteak aplikatu ezean. Izan ere, ebaluazioa ezinbestekoa da gardentasunari zentzua emateko, hau da, edukiz betetzeko, bestela hutsik geratuko litzateke eta. Halaber, gardentasuna ezinbestekoa da herritarren parte hartzerako, gardentasunik gabe herritarrek ez baitaizkate eztabaidarako nahitaezkoak diren datuak eta elementuak; hau da, administrazioak datuak ostenduz gero, herritarren arteko eztabaida hutsala da. Azkenik, bai gardentasuna bai herritarren parte hartzea ezinbestekoak dira politika publikoen benetako eragina ebaluatzeko. Hain zuzen ere, ebaluazio hori ez litzateke erabatekoa izango baldin eta arau eta programa publikoen jasotzaileek arau honen xedek betetzeko ezartzen diren kontsultak egiterik ez balute, ez eta erabiltzen den informazioa erkatzerik ez badago ere.

Horregatik guztiagatik, foru arau honetan garrantzi handia ematen zaio gardentasunari eta herritarren parte hartzeari, funtsezko osagaiak baitira gizarte demokratiko aurreratua eratzeko. Horren ildotik, botere publikoen jarduna gardenago izatea hartu da irizpide, demokrazia hobea eta eraginkorragoa izateko behar diren baliabideetako bat dela iritzita. Izan ere, demokrazia ezin da izan aldizka-aldizka botoa emateko eskubidea erabiltzea, besterik gabe. Gure ordenamendu juridikoak ezartzen du geroz eta baliabide hobek aplikatu behar direla herritarrek botere publikoen jardunaren berri jakiteko (zergatik egiten duten egiten dutena, nolako emaitzak lortzen diren...) eta jardun hori balioztatzeko.

Plangintza eta ebaluazioa ezinbesteko tresna estrategiko eta operatiboak dira sektore publikoaren funtzionamendurako. Plangintzaren bidez erakundeek euren helburuak finkatzen dituzte eta prozedura egokiak ezartzen dituzte helburu horiek gauzatzeko. Plangintzari esker erakundeek azaltzen dute zer egin behar duten euren helburuetara heltzeko behar dituzten baliabideak lortzeko eta aplikatzeko, nola hartu behar diren helburuekin eta hautatutako prozedurekin bat datozen erabakiak eta nola jokatu behar den erakundearen helburuak lortzen direnez kontrolatzeko. Jar-duera honetan sortzen den informazio guztia herritarren esku jartzea da gure asmoa; hori dela eta, modu formalean ezarri behar da plangintza prestatu eta gero ebaluatu beharra.

Beste alde batetik, eta ahaztu gabe nazioarteko arau erreferentzia, hau da, Europako Kontseiluaren 205. zenbakiko hitzarmena, agiri publikoak eskuratzeari buruzkoa (horren inguruko gutxieneko arauak ezartzen ditu, Batasuneko estatuen esperientziak eta jardunak aintzat hartuta), abenduaren 9ko 19/2013 Legeak, gardentasun, informazio publikoaren eskuragarritasun eta gobernamentu onarenak, jarduera publikoaren gardentasuna gehitzen eta sendotzen du.

Hori dela eta, jarduera publikoaren gardentasunak bi alde dauzka: publikotasun aktiboa, hau da, informazio publiko nabarmeneko betebeharrak aldizka eta eguneratuta argitaratzeko konpromisoa, bilketa eta zabaltze proaktiboa, hain zuzen ere herritarrei helarazteko foru-administrazio publikoaren eta foru-sektore publikoko entitateen jarduera, modu zabalenean, botereen kontu-ematea hobetze aldera; bestetik, pertsona guztien eskubide subjektiboa informazio publikoa eskaera baten bidez eskuratzeko.

Azkenik, gobernantza onaren funtsezko triangelua osatzeko, herritarren parte hartzea arautzen da, hau da, gizarte zibilak nola har dezakeen parte modu proaktiboan eta subiranotasunarekin Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren egitekoetan, gaur egun askotariko gizartea behar bezala kohesionatzeko eta horrela ezinbestekoak diren balio demokratikoak defendatzeko, esaterako tolerantzia, integrazioa, elkartasuna eta berdintasuna; horri guztiari esker jardun politikoa eta administratiboa eraginkorragoa eta legitimoagoa izatea bultzatuko da, politika publikoetan txertatu ahal izango baita herritarren ezagutzen, iritzien eta bizipenen aberastasun guztia. Hori lortzeko tresna egokiak ezarri behar dira, hain zuzen ere herritarrek erabil ditzaketenak euren iritzia, ekimenak, iradokizunak eta kezak botere publikoei helarazteko, ikuspuntuak eta interesak alderatzeko, eta eztabaidak bideratzeko, eta foru sektore publikoak bere gobernu jardunaren berri emateko herritarrei.

Gainera, gauza jakina da mugak eta oztopoak daudela emakumeek gizartean parte hartzeko eta badakigu sustatu beharra dagoela emakumeek gizarte demokratikoaren garapenerako ekarpenak egitea gizonen pare. Hori guztia kontuan edukita, foru arau honetako neurri guztiek zeharkako helburu hau dute: gizonetzko eta emakumezko herritarrek gizartean modu ekitatiboan parte hartzea sustatzea eta bermatzea. Horrenbestez, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasunerakoak, 14.11, 15. eta 20. artikuluetan xedatzen duena eta otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoak, 3. eta 23. artikuluetan xedatzen duena betetzeko, arau hau eratzeko emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa aplikatu da, gizonetzko eta emakumezko herritarrek gizartean modu ekitatiboan parte hartzea sustatzeko.

Horrenbestez, eratuko den gobernu eta administrazio publikoaren eredia gauza izan behar da herritarrengan konfiantza eta gizartean parte hartzeko gogoia sortzeko, herritarrei informazioa jasotzeko eskubidea bermatzeko eta, ondorioz, erakunde publikoen jarduna kontrolatzeko eta erantzukizunak eskatzeko aukera emateko, eta horretarako, Euskadiko Autonomia Estatutuak 37.3.a) artikuluan emandako eskumen eskusiboa erabiliz (foru organoen erakundeen antolamenduari, araubideari eta jardunbideari buruzko eskumena), Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren foru arau hau onartzen da. Foru arau honek 67 artikulua dauzka; hauxe da egitura: lau kapitulu, lau xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat eta bost azken xedapen. Azken xedapenetako azkenak ezartzen du foru araua ALHAOn argitaratutakoan jarriko dela indarrean.

I. kapituluaren arauaren xedea, aplikazio eremua eta helburuak zehazten dira. II. kapituluaren politika publikoen plangintza eta ebaluazioa arautzen dira; abiaburua gobernu plana da, Diputatu Nagusiak zehazten duen gobernu programarekin bat etorri prestatu behar dena. Funtszko elementu horri ebaluazio prozedurak erantsiko zaizkio, eta ebaluazioaren emaitzek eta plangintzaren oinarritzat erabiltzen diren datuek eztabaidarako eta erabakiak hartzeko prozesuak sendotuko dituzte; horrela objektibotasunaren eta gardentasunaren printzipioa gauzatuko da.

III. kapituluaren jardura publikoaren gardentasuna arautzen da, beraren bi aldeetan: publikotasun aktiboa eta informazioaren eskuragarritasuna. Hain zuzen ere, bigarren atalean publikotasun aktiboa arautzen da modu zabalean, eskuragarritasunik handienaren printzipioa oinarritzat hartuta (hau da, arau orokorra gardentasuna edo eskuragarritasuna izatea, informazioa ukatzea edo murriztea salbuespena dela); hirugarren atalean, aldiz, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea arautzen da, eskuragarritasunik handiena eta unibertsaltasuna aplikatuz.

Laugarren atalean antolamendua lantzen da: gardentasunarekin lotutako egitekoak zehazten dira, horren ardura duten organoak eta zerbitzuak identifikatzen dira, eta ahalik gehien lagundu beharra ezartzen da. Gainera, ez da ahaztu behar lehen xedapen gehigarriak gardentasunaren kontrola finkatzen duela, ezartzen baitu erregelamenduz arautuko dela Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoan administrazioarekiko auzietako aurkarapenen aurreko aukerako erreklamazioak ebartzeko dituen organoa.

Azkenik, IV. kapituluaren herritarren parte hartzea eta horretarako prozesuak arautzen dira; ikuspegi malgua eta moldagarria hartzen da, zeren, gaur egun parte hartzeko dauden figuren kopurua eta askotarikotasuna kontuan hartuta, hobe baita parte hartzeko prozesuetan bete beharreko baldintzak eta oinarritzko bermeak ezartzea parte hartzeko figuren katalogo itxia finkatu baino. Arabako Lurralde Historikoko herritarrek eta askotariko interesak ordezkatzeko dituzten taldeek parte hartzeko eta laguntzeko erregistroa sortzen da herritarrek eta interes taldeek lehenetsuneko komunikabidea eta alerta goiztiarrerako eskubidea edukitzeko.

Halaber, araugintzako ekimenak sustatzeko eskubidea sartzen da, uztailaren 4ko 15/1986 Foru Arauak, Arabako Batzar Nagusietako araugintzako herri ekimena arautzen duenak, ezartzen duen eskemari jarraituz eta bertan finkatzen diren bermeez baliatuz.

Kapitulu honetan jasotzen dira herritarren ahalduentzako ekintza dinamikoak, herritar guztien parte-hartzea oso bermatzera begira. Hala, hirugarren atala kontu-emate sozialaz jarduten du, zeina gardentasuna zein parte-hartzea artikulatzen duen tresna baita, herritarrei informazioa emateko eta herritarrek ebaluatu ditzaten foru-instituzioen jarduketak.

Jarraian, laugarren atalak herri-kontsulta erregulatzen du, edukien eta prozesu horietan aritzeko eskubidea duten subjektuen baldintzak ezarriz. Azkenik, bosgarrenak garatu egiten ditu herritarrek ahalduentzako bultzatzeko eskura duten mekanismoak, Lurralde Historikoa progresiboki egituratzeko modu gisa.

Azkeneko xedapenetatik laugarren xedapen gehigarria aipatu behar da: Foru Aldundiaren kide anitzeko gorengo organoaren gaztelaniazko izena (Consejo de Diputados) aldatzen da, emakumeak ostentzen dituelako eta ondorioz ez datorrelako bat berdintasunaren printzipioarekin. Orobat, azken xedapenetako hirugarrena ere aipatu behar da: batetik, foru ordenamendu juridikoa berrikusi eta erraztu behar dela ezartzen du; bestetik, lege baterakuntza horretarako abian jarri beharreko lehen neurria ezartzen du, hain zuzen ere Batzar Nagusien baimena hainbat foru arau bateratzeko, argiakoak eta koherenteagoak izan daitezten.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea

Foru arau honen xedea da ondoko hauek arautzea Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren eremuan: administrazio jardunaren gardentasuna eta publikotasuna; gobernu ona; informazioa publikoa eskuratzeko eskubidea; politika publikoaren ebaluazioa; herritarrek Arabako Lurralde Historikoko gai publikoetan parte hartzeko modua.

2. artikulua. Helburuak

Arau honek helburu hauek lortu nahi ditu:

a) Herritarrek gobernuaren kudeaketa eta politika publikoak gainbegiratzeko eta kontrolatzeko tresna izatea. Foru Arau honen 20. artikuluan eta ondorengoetan garatuko diren ekintza zehatzekin gauzatuko da.

b) Herritarrei aditzera ematea zein diren gobernuaren plangintza eta konpromiso estrategikoak, publikotasun aktiboaren printzipioa sendotuz.

c) Sustatzea herritarrek eskuragarri edukitzea Foru Administrazioak eta berari lotutako eta beraren mendeko erakundeek duten informazioa.

d) Herritarren artean eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoan gai publikoetan erantzunkidetasunez parte hartzeko kultura eta ohiturak sortzen laguntzea, kontsuluten bidez edo bestelako mekanismo batzuen bidez; dinamika horiek baliatzeko zailtasun handienak dituzten sektoreen ahalduntzea sustatuko da.

e) Politika publikoen ebaluazioa sustatzea, ebaluatzeko betebeharrari eta ebaluazio horren emaitzak aditzera emateko betebeharrari dagokienez.

3. artikulua. Aplikazio eremu subjektiboa

1. Foru arau hau ondoko hauetan aplikatuko da:

a) Administrazio Orokorra, hau da, Foru Aldundia eta beraren organoak.

b) Foru erakunde autonomoak.

c) Zuzenbide pribatuko erakunde publikoak.

d) Foru sozietate publikoak.

e) Foru sektore publikoko fundazioak.

f) Foru sektore publikoko partzuergoak.

2. Zerbitzu publikoak ematen edo administrazio ahalak erabiltzen dituzten pertsona fisikoek eta juridikoek eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko kontratuaren adjudikaziodunek III. kapituluan arautzen diren betebeharrak betetzeko behar diren informazio guztiak eman beharko dizkiote lotuta dauden aurreko idatz zatiko erakundeari, hark eskatuta; gauza bera egin beharko dute jarduera publikoaren gardentasunaren arloko oinarritzko legeriaren arabera horretara behartuta dauden gainerako subjektuek ere, bertan ezarritako irismenarekin.

Informazio hori eman beharra berariaz ezarriko da alderdien arteko harremanak finkatzen dituen tresnan (hitzarmena, administrazio klausula berezien agiria edo kontratu agiri baliokidea).

3. III. kapituluko publikotasun aktiboari buruzko arauak hauei ere aplikatuko zaizkie:

a) Arabako Lurralde Historikoko eremuan ari diren alderdi politikoei, sindikatu erakundeei eta enpresa erakundeei, baldin eta dirulaguntzaren bat jasotzen badute foru sektore publikoko funts publikoen kargura edo Arabako foru sektore publikoko erakunde batek emanik.

b) Entitate pribatuei, baldin eta aurrekontu ekitaldi batean foru sektore publikoko erakundeek emandako dirulaguntza publikoen zenbatekoa 100.000 euro baino gehiago bada edo urtean lortutako sarreraren ehuneko 40 edo gehiago laguntza edo dirulaguntza publikoak badira (5.000 euro gutxienez).

4. artikulua. Gobernu Irekiaren Ataria

1. Atarira sartzeko orrialdea euskaraz azalduko da lehenengo, eta aukera emango du gaztelania aukeratzeko, edo beste hizkuntza batzuk, baldin baleude.

2. Gobernu Irekiaren Ataria telekomunikazioetako sare publikoetan eskuragarri dagoen webgunea da. Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren eta herritarren arteko interakziarako lekua da; ekintza publikoa modu parte hartzailean eta erantzukizun partekatuarekin kudeatzera bideratuta dago, eta bertan gauzatzen dira gardentasunaren, parte hartzearen eta kontu ematearen printzipioak.

3. Helburu hauek dauzka:

a) Herritarren esku jartzea foru arau honek ezartzen duenaren arabera publikotasunaren printzipio aplikatzen zaion informazio guztia, sorburuan bertan edo 3.1 artikuluan aipatzen diren subjektuen web orrien esteken bitartez.

b) Herritarren aditze aktiboa eta beraien eta foru sektore publikoaren arteko elkarrizketa sustatzea, jardun publikoa beraien eskaeretara egokitzeko.

c) Herritarrek gai publikoetan parte eta esku hartzeko bideak ezartzea, Arabako Lurralde Historikokoaren gobernantzan lagundu dezaten jardule aktibo modura.

d) Herritarren beharrianak identifikatzea eta tresnak ematea herritarrek gai publikoetan modu efektiboan parte-hartu dezaten.

4. Atariaren titularra Arabako Foru Aldundia izango da, eta berak kudeatu eta administratuko du. Ez da izango egoitza juridikoa, ez juridikoki, ez teknikoki, eta behar bezala hornituta eta prestatuta egon behar da nornahik erabiltzeko, neutraltasun teknologikoa eta elkarreragingarritasuna bermatzeko, informazioaren kalitatea eta berrerabilpena ziurtatzeko, eta informazioa identifikatzeko eta kokatzeko. Halaber, dokumentuak web-era igo beharko dira editagarriak diren formatuetan.

Hori dela eta, behar diren neurriak ezarriko dira informazio publikoa apurka-apurka erraz erabili eta ulertzeko moduko datu base elektronikoetan eskuragarri egoteko.

5. Bereizkeriarik gabeko hizkera erabiliko da, emakumeak eta gizonak berdinduz bistaritzen dituen. Informazio edukietan eta txertatzen zaizkien irudietan kontuan eduki behar dira oreka, berdintasuna eta askotarikotasuna, eta estereotipoak saihestu behar dira; halaber, emakumeak bizitzako arlo guztietan agertu behar dira (gizartea, politika, ekonomia eta kultura). Arau honetako 3.1 artikuluan aipatzen diren erakundeek sexuaren arabera xehatuta erakutsi behar dituzte pertsonen buruzko datu guztiak.

6. Gobernu Irekiaren Ataria Arabako Foru Aldundiaren atariaren barruan egongo da.

7. Gobernu Irekiaren Atarian, bestalde, Arabako Lurralde Historikoko kuadrillen, udalen eta kasuan kasuko araudiaren arabera publikotasun aktiboa aplikatu behar duten gainerako subjektu eta erakundeen gardentasun atarien estekak agertu ahal izango dira.

Gainera, publikotasun aktiboaren inguruko betebeharrak betetzeko, Arabako Foru Aldundiak neurri osagarriak ezarri ahal izango ditu eta lankidetzan jardun ahal izango du beste administrazio publiko batzuekin.

8. Gardentasun kolaboratiboa.

a) Gardentasun Atariak edo Foru Arau honi atxikita dauden entitateen egoitza elektronikoak edo web orriak, aurreko artikuluetan ezarritako informazio publikoa jasotzeaz gain, guneak ezarriko dituzte entzuketara aktiboa bermatzeko, herritarren beharrianak identifikatzeko eta tresnak emateko herritarrek gai publikoetan modu efektiboan parte-hartu dezaten.

b) Halaber, Arabako Foru Aldundiak eta Arabako sektore publikoko entitateek bide elektronikoaren bitartez sustatuko dute herritarrek parte hartzeko kanalak foru-politika publikoak identifikatzeko, lantzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko.

c) Gardentasun Atariak edo Foru Arau honi atxikita dauden entitateen egoitza elektronikoak edo web orriak bideratuko du herritarrek foru-zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzea.

9. Informazioa berrerabiltzea eta datuen irekiera.

a) Foru arau honen aplikazio-eremuaren barruan dauden entitateek, balioa sortze aldera, sustatuko dute datu publikoen irekiera eta informazio publikoaren berrerabilpena, sektore publikoan aplikagarri den araudian ezartzen diren mugak errespetatuz.

b) Erregelamendu bidez xedatutako kasuak izan ezik, datuen berrerabilpen askea sustatuko da. Ez da aurretiko eskaerarik egin beharko eta baliatzeko ez da beharrezkoa izango aurretiko baimena. Beraz, banatzea, berrerabiltzea eta baliatzea erraztuko da formatu digital estandarizatu eta irekian.

II. KAPITULUA

GOBERNU JARDUNAREN PLANGINTZA ETA ALDUNDIAREN KUDEAKETA PUBLIKOAREN EBALUAZIOA

Lehenengo atala: gobernu jardunaren plangintza, aurreko ebaluazioa eta berri ematea

5. artikulua. Gobernu plana

1. Gobernu jarduna denboran zehar kokatzeko eta gizarteratzeko, eta herritarrekiko konpromisoaren eta erantzukizunaren oinarriak ezartzeko, Arabako Foru Aldundiak gobernu plan bat prestatuko du legegintzaldi bakoitzean, Foru Gobernua eratzen denetik urtebete pasatu baino lehen, Diputatu Nagusiak zehaztutako gobernu programaren arabera. Edukia irekia izango da, baina honako hauek zehaztu beharko dira, gutxienez: lortu nahi diren helburu estrategikoak; helburu estrategikoak lortzeko behar diren jarduerak baliabideak epeak; baita Plana betearazteko ardura duten organoak ere.

2. Lortu nahi diren helburuetara iristeko jardueren artean foru arau proiektuak, plan estrategikoak eta jarduketa garrantzitsuak identifikatu beharko dira. Foru Arau honen ondorioetarako, honela ulertzen dira:

a) Plan estrategikoak: herritarren beharrian eta arazoei erantzuna eman nahi dieten planak; lotura dute Aldundiaren aurreikuspenetan ezarritako lehentasun politikoekin eta baliteke sailen edo instituzioen arteko koordinazioa behar izatea, edo jarduketa publikoaren baliatze berritzaile bat; gainera, jarraipen xehatua eta emaitzen eta eraginaren ebaluazioa egin behar zaie.

b) Jarduketa nabarmenak: herritarren edo politikarien lehentasunetik datozen eta berez Aldundiak luzatutako konpromisoetan nabarmen aurrera egitea dakartzaten askotariko ekimenak; besteak beste, izan daitezke arau-xedapenak, antolaketa-aldaketak, inbertsio-proiektuak edo programa esperimentalak.

3. Gobernu plana Arabako Batzar Nagusietara bidaliko da, jakinaren gainean egon daitezen, eta ALHAOn eta Gobernu Irekiaren Atarian (4. artikulua) argitaratuko da. Horretarako informazio horren hainbat bertsio publiko egingo dira, eta denak ere herritarren esku jarriko dira.

6. artikulua. Foru arauen aurreproiektuen eta jarduketa garrantzitsuen eraginaren aurreko ebaluazioa

1. Aldez aurretik ebaluatuko da gobernu planetan ezartzen diren foru arauen aurreproiektu eta plan estrategiko guztiek edukiko duten eragina, eta gauza bera egingo da gobernu planetan hori egin beharra ezartzen zaien jarduketa garrantzitsu guztiekin ere.

2. 1. idatz zatian adierazten diren nahitaezko ebaluazioak egiteaz gain, Foru Aldundiak urtero ebaluatu beharreko jarduketa publiko adierazgarrien zerranda prestatuko du. Probabilitate, garrantzi edo hedapen handieneko eraginak izan ditzaketen jarduketak, ziurgabetasun handiena ekar dezaketen eraginak izan ditzaketenak eta arazo garrantzitsuenei aurre egiten dietenak ebaluatuko dira, gutxienez.

3. Gainontzeko administrazio jardunari dagokionez, foru sektore publikoko sailek edo erakundeek berek ebaluatu ahal izango dituzte ebaluatu beharrekotzat jotzen dituzten beren eskumeneko esku hartze publikoak; zeintzuk ebaluatu behar diren ezartzeko aurretik erabakiak hartzeko oinarritzat har daitekeen ebaluaziorik edo daturik ez egotea hartuko dute kontuan.

7. artikulua. Arau aurreproiektu, plan estrategiko eta jarduketa garrantzitsuen eraginaren aurreko ebaluazioa: definizioa eta prozedura

1. Arau honen arabera hauxe izango da eraginaren aurreko ebaluazioa: modu zehatz eta ordenatuan eskuratutako informazioa behatu, neurtu, aztertu eta interpretatzeko prozesu sistematikoa, politika publikoko aukera desberdinek izan ditzaketen kostuen eta onura ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumenekoen zenbatespen kualitatiboa eta, ahal den heinean, kuantitatiboa egitera bideratua –diseinuaren, praktikan jartzearen eta eraginaren ebidentzietan oinarrituz proposamenak eta balorazioak egiteko–, eta organo eskudunak hartu beharreko erabakiari buruzko txostena ematen duena. Ahal bada, alde aurreko ebaluazioan kontuan hartuko da aurreikusitako esku hartze publikoen eta indarrean daudenen eta egiteko direnen arteko elkarre-ragina, denek batera edukiko duten eragina finkatzeko.

2. Jarduketa publikoa proposatzeko edo gauzatzeko eskumena daukan sailak zehaztuko du ebaluazio bakoitzaren irismena, sakontasuna eta analisi maila. Ebaluazioak aurreikusi behar du Administrazioaren eskura egongo den aukeren sorta bat; haien artean jasoko da betiere esku ez hartzea edo uneko egoera ez aldatzea.

3. Ebaluazio prozesua gardena, ulergarria eta publikoa izan behar da.

4. Batzorde bat eratuko da aurre egin beharreko arazoak edo proiektatutako ekintzak ukitzen dituen sail guztietako ordezkariekin, jarduketa publikoa proposatzeko edo gauzatzeko eskumena duen saila buru duela, eta batzorde horrek ikuskatu eta bultzatu beharko du prozedura. Era berean, batzorde horri dagokio eraginaren txostena onartzea eta, beharrezkotzat jotzen badu, ebaluazio sakonagoa egin dadila proposatzea. Batzorde honetan jardun politikoan zeharkako lerroak bultzatzeko ardura dutenak ere ariko dira.

5. Dauden aukera teknikoaren barruan, eraginaren txostenak adieraziko du eraginek izan dezaketen gizarte- eta lurralde-banaketa, estimazioek denboran zehar duten bilakaera, bai eta zein epetan aurreikusten den eragin positiboa edo negatiboa izatea edo, bestela, benetako emaitzen eta eragin jarraipena eta ebaluazioa egiteko oinarri gisa balioko duen epe bat, hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera. Aintzat hartuko dira bereziki generoari, aniztasun funtzionalari eta lurralde orekari dagokionak.

8. artikulua. Gobernu planaren burutzapenaren jarraipena

1. Gobernu planean ezartzen denarekin bat etorriz, Foru Gobernuak jarraipen agiri bat onartuko du, sei hiletik behin foru arauen aurreproiektuen kasuan eta urtean behin plan estrategiko eta jarduketa garrantzitsuen kasuan. Agiri horretan zehaztuko dira horietako bakoitzaren aurrerapen maila eta, bakoitza gauzatzen doan heinean lortutako aurrerapenen analisisa ikusita, planifikatutakoari egin nahi zaizkion aldaketak, hobekuntzak sartzeko eta aktibatuta dauden bi-tartekoak birbideratzeko, hala nola bitarteko humano, material eta finantzarioen inkorporazioak edo bajak eta aldi baterako birprogramazioak. Dokumentu horien berri emango da Gobernu Planerako ezarritako termino eta baldintza berdinekin.

2. Era berean, foru gobernuak txosten bat egingo du gobernu-planaren betetzeari buruz, zeinean, gutxienez, 5. artikuluan jasotako adierazleen betetze-maila zehaztuko baita.

Bigarren atala: emaitzen eta arauk izandako eragin metatuen ebaluazioa

9. artikulua. Kontzeptua

1. Emaitzen ebaluazioa prozesu sistemikoa da, honetan datzana: plan estrategiko edo jarduketa publiko bat behatzen, analizatzen eta interpretatzen da diseinua, funtzionamendua, emaitzak eta eraginak baloratzeko, ebidentzietan oinarrituta. Ebaluazioaren helburua gizartearen onura da, zerbitzu publikoen kalitatea eta eraginkortasuna hobetzeko tresna baita.

2. Ebaluazioa berriazko jarduera da, berezko nortasuna daukana, oso bestelakoa barruko kontrolarekin, finantza auditoretzarekin, kudeaketaren auditoretzarekin eta aurrekontu kontrolarekin alderatuta, baina aldi berean horiekin guztiekin osagarritasun harremanetan dagoena.

3. Ebaluazioari esker ikaskuntza eta berrikuntza sustatuko dira eta gardentasuna bultzatuko da kontu ematearen bidez, eta horrek guztiak herritarrek administrazio publikoan duen konfiantza indartuko du.

4. Behar den guztietan, sektore jakinak ukitzen dituzten arau multzoek izandako eragin meta-tuen emaitzak ebaluatuko dira. Hain zuzen ere, gehiegizko arau multzoak erraztu, kodetu, bat egin eta bateratuko dira arrazionalizatzeko eta murrizteko, edo legeria arinduko da, manu eta foru arau zaharkituak kenduta, arauen kalitatea, argitasuna, zehaztasuna eta ulergarritasuna bermatzeko.

10. artikulua. Helburuak

Foru sektore publikoak jardun publikoan erantzukizunarekin aritzea bultzatuko du, bai eta jardun hori kontrolpean edukitzea ere. Horretarako, neurri egokiak aplikatuko ditu emaitzak ebaluatzeko sistema bat prestatzeko eta ezartzeko, hau da, gobernu onerako eta etengabeko hobekuntzarako tresna bat, honako helburu hauek edukiko dituena:

- a) Baliabide publikoak modu arrazionalen erabiltzea sustatzea eta ekonomiaren eta finantzen kudeaketa onerako printzipioak aplikatzea.
- b) Politika eta programa publikoen ebaluazioa errazten duten informazio sistemak prestatzea.
- c) Foru Administrazioaren kudeaketaren adierazleak ezartzea, politika publikoen eragin berri jakiteko aukera ematen dutenak.
- d) Zerbitzu publikoen kalitatea eta etengabeko hobekuntza bultzatzea.
- e) Plan eta programa publikoak kudeatzen dituzten organoen artean erantzukizunaren kultura zabaltzea.

11. artikulua. Irizpideak

1. Emaizten ebaluazioan irizpide hauek aplikatuko dira:

- a) Lortu nahi diren helburuen garrantzia, interes orokorraren arabera.
- b) Eraginkortasuna, hau da, lortu nahi diren helburuak erdietsi diren.
- c) Efizientzia, hau da, emaitzak lortzeko behar izan diren baliabideak zentzuz erabili diren eta kopuru egokiak erabili diren.
- d) Planaren edo jarduketaren aplikazioak eduki duen eragina.
- e) Politikaren aldaketa edo ondorio positiboa jasagarrian edo iraunkorra den.

2. Irizpide horiez gainera beste faktore batzuk ere aplika daitezke analisirako: koherentzia, ekitatea, erantzuteko gaitasuna, egokitasuna, estaldura eta errentagarritasuna, bai eta herritarren asebetetze-maila. Hauek malgutasunarekin aplikatu behar dira, kasuan kasukoak.

3. Politika publiko baten emaitzak hura diseinatzeko eta gauzatzeko eskumena eduki duen sailak ebaluatuko ditu; horretarako bere baliabideak erabil ditzake edo kanpo kontrataziora jo dezake.

12. artikulua. Irismena

1. Emaizten ebaluazioa egingo zaie, halaber, alde zuzenetik eraginaren ebaluazioa egin beharra ezarrita duten gobernu planeko plan estrategikoei eta jarduketa publiko garrantzitsuei, gauzatutakoan.

2. Emaizten ebaluazioaren gutxienezko edukia barruan (eduki hori aldakorra da plan estrategiko edo jarduketa publiko bakoitzaren izaera edo formaren arabera) helburuen eta aurreikuspenen betetze maila sartu behar da, bai eta gerta litezkeen desbideratzeen arrazoiak ere. Planak edo jarduketak herritarrengan eragina badauka, haien iritzia eta balorazioa jaso behar dira. Gainera kontuan hartu behar dira aldi berean abiatutako beste jarduketa publiko batzuekin izandako elkarreraginak, emaitzetan eragina eduki ahal izan dutenak; ahal dela, batzuen eta besteen ondorioak bereizi behar dira.

Hirugarren atala: foru sektore publikoaren zerbitzu publikoen kalitatearen ebaluazioa

13. artikulua. Helburua eta kontzeptua

1. Zerbitzu publikoen kalitatearen ebaluazioak hainbat helburu dauzka: erabakiak hartzeko behar den informazioa hornitzea; gardentasuna sustatzea informazioaren eta herritarrek jasotzen dituzten zerbitzuen kalitatearen berri emanez, haien iritziak bilduta; azkenik, administrazio jardunaren eraginkortasuna hobetzea eta produktibitatea gehitzea baliabideak ahalik ondoen erabiliz eta behar bezala esleituz.

2. Zerbitzu publikoen ebaluazioaren funtsa zerbitzuaren analisi sistematiko eta jarraitua da; ondoko alderdiak hartzen dira kontuan: eskariaren analisisa, pertsona erabiltzaileen beharriak detektatzea eta haien iritziak, proposamenak eta kritikak biltzea, eta zerbitzu bakoitzaren prestazio maila herritarren nahietara egokitzea.

3. Foru sailek adieraziko dute beren eskumeneko zerbitzu publikoetatik zeintzuk ebaluatu behar liratekeen, kontuan izanik herritarren eskariak eta beharriak.

4. Zerbitzu publikoen kalitatea neurtzeko ezinbestekoa da aurretik konpromisoak eta beren adierazleak finkatzea; elementu hauek hartuko dira aintzat:

a) Zerbitzu publikoen administrazio prozedurak eta prestazio prozedurak.

b) Ebaluatzen den organoaren jardunaren emaitzak, bereganatutako konpromisoekin eta herritarren nahiekin alderatuz.

c) Eragindako norbanakoen eta/edo kolektiboen adostasun eta asebetetze maila.

5. Zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeko onarpen zabaleko kalitatearen kudeaketa eredu ezagunak aplikatuko dira. Aplikatzen den ereduak aukera eman behar du administrazio organoen emaitzak erkatzeko eta esperientziak trukatzeko.

6. Ebaluazioa autoebaluazio gisa eratu da, norberaren baliabideak erabiliz edo behar diren kontratazioak eginez, arau honetako 50. artikuluan arautzen den herritarren parte hartzea aintzat hartuz.

Laugarren atala: ebaluazioen publikotasuna

14. artikulua. Ebaluazioaren publikotasuna

1. Arau honetan aipatzen den publikotasun aktiboaren printzipioa aplikatuz, eta kapitulu honetan ezartzen denaren arabera egin beharreko ebaluazioei dagokienez, Arabako Foru Aldundiak ebaluazio prozesuan eta beraien emaitzen berri emango die herritarrei erraz eskuratzeko moduan eta komunikazio-formatu ezberdinen bidez; muga bakarrak indarrean dagoen legeriak ezartzen dituenak izango dira. Ebaluazio guztiak Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuko dira gutxienez.

2. Arau honetan xedatzen den politika zerbitzu publikoen emaitzen eta kalitatearen ebaluazioan parte hartzeko eskubidearen arabera, ebaluazio prozesu bakoitzean herritarrei entzuteko edota haiek galderak egiteko aldia irekiko da eta, horrela, ebaluatzeko eta parte hartzeko aukera emango zaie. Kontsulta eta entzunaldi publiko horien emaitza ebaluazio agirian sartu behar da beti. Izapide hori egiten ez bada, ez egiteko arrazoiak eman behar dira.

Bosgarren atala: plangintza eta ebaluazioa sustatzea eta prozesu horien publikotasuna

15. artikulua. Plangintzaren eta ebaluazioaren kultura

1. Arau honetan biltzen diren printzipioak gauzatzeko asmoarekin Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoak neurriak ezarriko ditu bere antolamenduan plangintzaren eta ebaluazioaren kultura bultzatzeko. Horretarako bere langileak informatu, sentsibilizatu eta prestatuko ditu, ezagupen sareak eta lankidetzak taldeak sortuko ditu, eta ezarpena errazten duten tresna teknikoak partekatu edo landuko ditu.

2. Egiteko horretan Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoak erabiltzen dituen parametroak, adierazleak, programak, tresna informatikoak eta gainontzeko baliabide analitikoak Estatuan eta Europan erabiltzen direnekin homologatzeko modukoak izango dira, ahal dela. Horrela informazio truke handiagoa lortuko da eta hobeto ebaluatuko da nolako eragina duten lurraldean politika maila desberdinetan ezartzen diren politikak.

16. artikulua. Jakintza zientifikoa eta aditua politika publikoen ebaluazioan txertatzea

1. Arabako sektore publikoko entitateek, lehenetsunez, beren antolakundearen gaitasun teknikoak eta zientifikoak baliatuko dituzte eta, kontratu publikoen araudiaren arabera posible denean, dauden instituzio akademikoak edo ikerketa-instituzioak.

Halaber, eta aurrekontuak ematen dituen aukeren barruan, ikerkuntza sustatuko da, politika publikoak diseinatzeko erabakien aukerak edo arrisku nabarmenak zehazte aldera.

2. Ebaluazio eta planifikazio prozesuetan ezagutza teknikoa eta zientifikoa txertatzeko, beste irizpide batzuen artean, kontuan hartuko dira garrantzia, sinesgarritasuna, euskarri empirikoa eta barruko baliotasuna edo gatazkan diren teoria zientifikoen sendotasuna, bai eta kasu zehatz biterako eta proiektatutako gobernu-politikaren testuinguru espezifikorako duen aplikagarritasuna.

Gainera, bermatuko da modu ulergarrian eta egokian gauzatzea, eta herri parte-hartze eta kontsulta prozesuetan bere ekarpenak jasoko dira.

III. KAPITULUA

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO SEKTORE PUBLIKOAREN GARDENTASUNA

Lehenengo atala: printzipio orokorrak

17. artikulua. Eskuragarritasunik handienaren printzipioa

Informazio publikoaren eskuragarritasunik handienaren printzipiotik abiatuta, gardentasuna izatea edo informazioa eskuratu ahal izatea arau orokorra izan behar da, eta informazioa ukatu edo mugatzea, berriz, salbuespena. Lege mailako xedapen batek aginduta edo oinarritzko eskubideren baten babesak derrigortuta baino ez dira egin behar salbuespenak, eta beren aplikazioan modu murriztailean interpretatu behar dira, dena delako informazioa zabaltzearen edo eskura jartzearen alde eginez. Horretarako, datu pertsonalen bereizketarako eta informazioaren eskuratze partzialerako teknikak erabiliko dira, betiere eskuragarritasunik handienaren printzipioaren zerbitzuan.

18. artikulua. Argitaratzen edo ematen den informazioaren izaera, kalitatea eta ondorioak

1. Informazio publikotzat jotzen dira foru arau honetako 3. artikuluko subjektuek beren egin-kizunetan sortu edo jaso eta euren esku dituzten edukiak eta dokumentuak, formatua edo euskarria gorabehera.

2. Informazio publikoa egiazkoa, objektiboa eta eguneratua izan behar da, eta gardentasunaren xedeak betetzeko egokia; ahalik errazen ulertzeko moduan eman behar da, erraz irakurtzeko eta ulertzeko formatuetan, herritar guztientzat ulergarriak diren mezuak emanaz.

3. Foru arau honetan oinarrituta zabaltzen edo ematen den informazio publikoak ondorio juridiko hauek baino ez ditu izango: publikotasun aktiboaren arloko betebeharrak betetzea eta informazioa eskuratzeko eskubidea gauzatzea.

19. artikulua. Arabako Lurralde Publikoko sektore publikoaren gardentasunari buruz kapitulu honetan ezartzen dena ez betetzea

Behin eta berriz publikotasun aktiboaren betebeharrak edota informazio publikoa eskuratzeko eskaerak epean ebazteko betebeharra ez betetzea arau hauste administratibotzat joko da, oinarritzko araudiak ezartzen dituen baldintzetan, eta erantzuleei kasuan kasuko araudian ezarritako diziplina araubidea aplikatu ahal izango zaie.

Bigarren atala: publikotasun aktiboa

20 artikulua. Publikotasun aktiboaren kontzeptua

Publikotasun aktiboa da informazio publiko nabarmeneko betebeharrak aldizka eta eguneratuta argitaratzeko konpromisoa, bilketa eta zabaltze proaktiboa, hain zuzen ere herritarrei helarazteko foru-administrazio publikoaren eta foru-sektore publikoko entitateen jarduera, modu zabalenean, botereen kontu-ematea hobetze aldera; bestetik, pertsona guztien eskubide subjektiboa informazio publikoa eskaera baten bidez eskuratzeko.

21. artikulua. Betebeharrak

1. Foru Aldundiak eta arau honetako 3.1 artikuluko gainerako erakundeek 22-26 bitarteko artikuluetan zehazten den informazio publikoa argitaratu edo zabalduko dute, euren ekimenez eta doan. Informazio hori gutxienezkoa eta nahitaezkoa izango da; betiere, publikotasunaren arloko araubide zabalagoa ezartzen duten beste xedapen berariazko batzuk aplikatu ahal izango dira, eta behartutako subjektuek informazioaren edukia handitu ahal izango dute. Era berean, foru sektore publikoko erakundeetako gobernu organoek kapitulu honetan aurreikusten diren publikotasun aktiboaren inguruko betebeharrak handitu ahal izango dituzte.

Halaber, sarrien eskatzen den informazioaren publikotasun aktiboa egin behar da, datu pertsonalak bereizi eta gero, halakorik badago; eta informazioa eskuratzeari ukatzen edo mugatzen duten ebazpenei ere publikotasun aktiboa aplikatuko zaie, pertsona interesdunei jakinarazi ondoren.

2. Etenik gabe eguneratutako informazioa eman beharko da, kasuan kasuko informazioaren berezitasunak kontuan hartuta.

3. Informazio argia eta egituratua argitaratuko da, modu seguru eta ulerterrazean. Batez ere, bereizkeria teknologikorik ez izatea bermatuko da, pertsona guztiek aukera berak eduki ditzaten beren eskubideak erabiltzeko.

Informazio guztia desgaitasuna duten pertsonen eskura egongo da modalitate irisgarri batean. Horrek esan nahi du informazioa emateko bide edo formatu egokiak erabili behar direla, eskuragarriak eta ulergarriak, irisgarritasun unibertsalaren eta guztientzako diseinuaren printzipioari jarraituz.

4. Informazioa, ahal dela, baliabide telematikoak eta informatikoak erabiliz zabalduko da, batez ere 4. artikuluan araututako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez. Informazio hori berriro erabili ahal izango da, sektore publikoko informazioa berrerabiltzeari buruzko indarreko araudian ezartzen diren muga barruan. Horretarako, teknikoki ahal den guztietan, informazioa birbanatzeko, berrerabiltzeko eta baliatzeko aukera ematen duten formatu elektronikoetan eskainiko da.

5. Informazio publiko guztiak euskaraz eta gaztelaniaz zabalduko dira.

6. Oinarrizko legerian informazio publikoa eskuratzeko eskubideari ezartzen zaizkion mugak eta salbuespenak aplikatuko dira, bereziki datu pertsonalen babesaren ondoriozkoak eta oinarrizko eskubideen babesaren ondoriozkoak. Betiere, 22-26 bitarteko artikuluetan aipatzen den informazioa modu egokian prestatu eta aurkeztuko da, aipatutako mugak ez daitezela oztopo izan hura argitaratzeko. Hori dela eta, informazioan babes bereziko datuak daudenean, informazioa argitaratu aurretik datu horiek bereizi egin beharko dira.

22. artikulua. Erakundeei buruzko informazioa, antolamendukoa, plangintzako eta ondareari buruzkoa

1. Foru Aldundiak eta arau honetako 3.1 artikuluko gainerako erakundeek ondoko informazio hau argitaratuko dute erakundeari eta antolamenduari buruz:

- a) Bete behar dituzten eginkizunak.
- b) Aplikatzen zaien araudia.

c) Antolamendu egitura. Organigrama eguneratua zehaztu behar da, organo guztien arduradunak identifikatuta.

d) Egoitza non dagoen, jendearen arretarako ordutegia eta harremanetarako bideak.

e) Langileen kopurua; urteko ordainsari osoak, tartearen, mailaren eta lanpostuaren arabera; langile finkoen eta aldi baterako langileen ehunekoak; erantzukizuneko lanpostuak; esleitutako hizkuntza eskakizunak, eta egiaztatutako ehunekoak; eta libreki izendatu eta kargutik kendu daitezkeen konfiantzazko kargudun, aholkulari edo laguntzaileen kopurua. Datu horiek guztiak sexuaren arabera xehatu behar dira.

f) Lan eskaintza publikoa, edo langile beharrianak kudeatzeko antzeko tresnaren bat, eta hautaketa prozesuak.

g) Liberatu instituzionalak zenbat diren, euren sindikatuen arabera sailkatuta, eta urtean zenbat ordu hartzen dituzten.

h) Langile publikoei bateragarritasuna baimentzeko edo onartzeko emandako ebazpenak.

a) 3.1 artikuluan adierazitako izendatutako aholkularien eta konfiantzazko karguen zerrenda, bai eta haien kargu uzteak. Adieraziko da zein organori atxikiak diren eta zein diren beren zereginak.

b) Aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoen urteroko txostena.

k) Pertsona horiek eman nahi dituzten gainerako datu guztiak.

2. Foru Administrazioak eta foru erakunde autonomoek argitara emango dituzte helburu zehatzak ezartzen dituzten plan eta programak, urtekoak nahiz urte anitzekoak, eta horiek betetzeko aurreikusitako ekintzak, baliabideak eta epeak. Betetze maila eta lortutako emaitzak aldi behin ebaluatu eta argitaratuko dira, neurketaren eta balorazioaren adierazleekin batera.

Halaber, arau honen aginduz egiten diren ebaluazioak sistematikoki argitaratuko dira; horri dagokionez ez da beste mugarik izango indarreko legerian ezarritakoak baino.

3. Aurreko horiez gainera Arabako Foru Aldundiak informazio hauek ere argitaratuko ditu:

a) Bere jabetzako ondasun higiezinak eta eskubide erreala daukan ondasun higiezinak zerrenda, eta bakoitzari ezarritako erabilera edo zerbitzua; bakoitza zein saili edo erakunderi atxikita edo zein entitateri lagata dagoen.

b) Parte hartzen duen erakunde publiko eta pribatuen oinarrizko datuen zerrenda. Kasuan kasuko partaidetza mota eta erakunde horien web orrietan sartzeko estekak jarri behar ditu.

23. artikulua. Foru arau honen aplikazio eremuko erakundeetan erantzukizun gorena duten pertsonen eta goi kargudunen buruzko informazioa

1. Foru Aldundiko Jardueren Erregistroari eta Ondasun eta Interesen Erregistroari buruzko foru araudiaren aplikazio eremuko pertsonak direla eta, gutxienez informazio hauek argitaratuko dira:

a) Pertsona horien identifikazioa, profila eta lan ibilbidea.

b) Urtean jasotzen dituzten mota guztietako soldadak edo ordainsariak; kargua utziz gero, jasotako kalte-ordainak.

c) Beste organo eta erakunde batzuetan dauzkaten karguak edo ordezkariak, eta dauzkaten bestelako kargu publikoak.

d) Organo eskudunak egin beharreko jardueren bateraezintasunaz emandako ebazpenak.

e) Arabako Foru Aldundiko jardueren eta ondasun-interesen erregistroen araudian xedatzen denaren arabera, ALHAOn argitaratu beharreko ondasun eta interesen aitortzeak eta sei hilean

behin Arabako Batzar Nagusietara aitortenez bidali beharreko informazioa (kopurua eta motak), aitortu beharra bete ez duten kargudunen kopurua eta kargudunok nortzuk diren. Nolanahi ere, ez dira emango ondasun higiezinak zehazki non dauden adierazten duten datuak, eta titularren pribatutasuna eta segurtasuna bermatuko dira.

f) Jardueren agenda instituzionala; zehaztuko da diputatu nagusiarena eta Foru Gobernu Kontseiluko gainerako kideena, eta gutxienez adieraziko dira 44. artikulua aipatzen duen erregistroak inskribatuta dauden norbanako edo entitateekin izandako bilerak edo topaketak.

g) Diputatu nagusiak eta Foru Gobernu Kontseiluko gainerako kideek beren zereginak betetz egindako nazioarteko bidaia baten ondorengo hilabetean, adieraziz bidaia horren xedea.

24. artikulua. Garrantzi juridikoa daukan informazioa

Arabako Foru Aldundiak honako hauek argitaratuko ditu bere eskumenen eremuan:

a) Foru arauen proiektuak, araugintzako foru dekretuen proiektuak eta zerga premiazko araugintzako dekretuen proiektuak, eta horiek guztiak sortzeko egiten diren espedienteetako memoriak eta txostenak, beti ere Foru Gobernu Kontseiluaren onarpenarekin.

b) Araugintzako foru dekretuen proiektuak entzunaldiaren edo jendaurreko informazioaren izapidea egiten denean argitaratuko ditu. Entzunaldiaren edo jendaurreko informazioaren entzunaldia egin behar ez bada, Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordeari irizpena eskatzen zaionean argitaratuko da; irizpena emandakoan, publikotasuna aplikatuko zaio.

c) Herritarren parte hartzea egonez gero, prozesuaren memoria eta ondorioak.

d) Indarreko legeria sektorialaren arabera izapidetzean jendaurrean jarri behar diren dokumentuak.

e) Foru Gobernuaren Kontseiluaren aginduak, aurretiaz, eta hartutako erabakien laburpenak hirurogeita hamabi orduko epean.

f) Arabako Lurralde Historikoan indarrean dagoen araudia; beti egon behar da eguneratuta eta herritarren eskura.

g) Gidalerroak, jarraibideak, erabakiak, zirkularrak eta norbanakoek edo beste organo batzuek egindako kontsulten erantzunak, baldin eta Zuzenbidea interpretatzen badute edo ondorio juridikoak badituzte.

25. artikulua. Kontratazioari, hitzarmenei eta dirulaguntzei buruzko informazioa

Foru Aldundiak eta arau honetako 3.1 artikuluan aipatzen diren gainerako erakundeek honako informazio hau argitaratu beharko dute:

1. Kontratazio jarduerari dagokionez:

a) Kontratu guztiak, horien xedea, iraupena, lizitazioko eta adjudikazioko zenbatekoak, erabilitako prozedura, publizitaterako erabilitako tresnak (publizitaterik izan bada), kontratazio prozeduran parte hartutakoen kopurua, adjudikazioa jaso duen pertsonaren edo entitatearen izena, sartutako klausula sozialak eta, horien artean, berdintasun klausulak. Argitara emango dira, halaber, aldaketak eta luzapenak, eta adjudikazio prozeduran atzera egiteko eta kontratuak egiteari uko egiteko erabakiak.

Kontratu txikiei buruzko informazioa bi hilean behin argitaratu ahal izango da.

b) Kontratazio entitateak eta organoak (datu hauek adierazita: telefonoa, posta helbidea eta helbide elektronikoa, eta kontratazio mahaien osaera), eta haien aktak eta ebazpenak.

c) Sektore publikoko kontratuen legerian ezartzen diren prozeduretako bakoitzaren arabera adjudikatzen diren kontratuek aurrekontu bolumenean egiten duten ehunekoari buruzko datu estatistikoak.

2. Hitzarmenei dagokienez:

a) Sinatutako hitzarmenen zerrenda. Bertan aipatuko dira alderdi sinatzaileak, xedea, irau-naldia, egindako aldaketak, hitzartutako prestazioak, hitzarmena bete behar duten subjektuak eta, halakorik bada, hitzartutako betebeharrak ekonomikoak, eta sartutako klausula sozialak, tartean berdintasunekoak.

b) Kudeatzeko ardura emateko sinatutako mandatuak, horien xedea, aurrekontua, iraupena, betebeharrak ekonomikoak eta egiten diren azpikontratazioak, horien adjudikazioa jaso duten pertsonak edo entitateak, adjudikaziorako erabilitako prozedura eta adjudikazioaren zenbatekoa.

3. Dirulaguntzei dagokienez:

a) Emandako dirulaguntzak eta laguntzak –deialdia aipatu behar da, edo emateko ebazpena, salbuespenezko dirulaguntzen kasuan–, haien zenbatekoa, helburua edo xedea, pertsona onuradunak eta sartutako klausula sozialak, tartean berdintasunekoak.

b) Alderdi politiko, federazio, koalizio edo hautesle elkarteentzako dirulaguntzak, martxoaren 27ko 1/1987 Legeak, lurralde historikoetako batzar nagusietarako hauteskundeak, 11. artikuluan aipatzen dituen hauteskunde gastuak finantzatzeko eman zaizkienak. Emandako zenbatekoaren azalpena egin behar da, artikulua horretan ezarritako moduan.

26. artikulua. Ekonomiari, finantzei eta aurrekontuei buruzko informazioa eta informazio estatistikoa

1. Foru Aldundiak eta arau honetako 3.1 artikuluan aipatzen diren gainerako erakundeek aditzera eman beharko dituzte ekonomiari edo aurrekontuei eragiten dieten informazioak, hain zuzen ere:

a) Aurrekontuak; aurrekontu partida nagusiak deskribatu behar dira eta haien gauzatze egoerari buruzko informazio eguneratua eta ulerterraza eman behar da, ahalik eta xehatuena eta partida guzti-guztiak deskribatuz. Aurrekontu-gauzatzearen publizitatea hilerokoa izango da Arabako Foru Aldundiaren eta bere organismo autonomoen kasuan, eta 3.1 artikuluan zerrendatutako gainerako entitateentzat hiru hilerokoa izango da.

b) Eman beharreko urteko kontuak, eta kanpoko kontrol organoek kontu horien gainean egiten dituzten auditoretzako eta fiskalizazioko txostenak.

c) Urtero argitaratuko dira ondorengo finantza- eta aurrekontu-adierazleak, likidatutako azken aurrekontuarenak:

– Superabita (edo defizita) biztanleko (doitutako aurrekontu emaitza/biztanle kopurua).

– Autonomia fiskala (Zerga diru-sarreraren errekonozitutako eskubide garbiak/ Errekonozitutako eskubide garbiak guztira)

– Foru Aldundiaren finantzatzeko gaitasunak/beharrak diru-sarrera finantzarioen edo probintziako Barne Produktu Gordinari (BPG) gaineko kontabilitate nazionalari dagokionez ordezkatzen duen proportzioa.

– Zerga diru-sarrerak biztanleko.

– Inbertsioa biztanleko.

– Batz besteko kobrantza-aldia.

– Zorpetzea biztanleko.

– Zorpetze erlatiboa, zorrak eta epe luzeko maileguek, guztira, diru-sarrera arrunten gainean ordezkatzen duten portzentaje gisa kalkulatuta.

– Fakturak ordaintzeko batez besteko aldia.

– Balio Erantsiaren gaineko Zergaren itzulketak egiteko urteko batez besteko epea, Hileko Itzulketen Erregistroari dagokionez.

2. Aurrekoez gainera Arabako Foru Aldundiak informazio hauek ere argitaratuko ditu:

a) Aurrekontu egonkortasunaren eta finantza jasangarritasunaren arloko helburuak betetzeari buruzko informazioa.

b) Bere diru sarrera eta gastuekin zerikusia duen oinarrizko informazioa: zerga sarrerak; gastua eta inbertsioa biztanleko eta udalerriko; eta hornitzaileei ordaintzeko epeak betetzearen ingurukoa.

c) Foru sektore publikoaren finantzaketari buruzko oinarrizko informazioa (finantzatzeko tresnak aipatu behar dira).

d) Arabako Foru Aldundiaren zorra, horren bilakaera denboran zehar, epeak eta oinarrizko ezaugarriak, biztanle bakoitzeko zorra eta zor erlatiboa; eta Aldundiak bere merkataritza sozietatei baimendutako zorpetze eragiketak.

e) Abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko ekonomia eta aurrekontu araubidearenak, 100. artikuluan xedatzen duenaren arabera Arabako Foru Aldundiak emandako abalak.

f) Publizitate instituzionaleko kanpainetan egindako gastu publikoa. Hautatutako euskarria eta komunikazio bidea aipatu behar dira.

g) Aldundiaren eskumeneko zerbitzu publikoen betetze maila eta kalitatea baloratu ahal izateko behar den informazio estatistikoa.

27. artikulua. Publikotasun aktiboaren arloko betebeharren hedapena

1. Foru sektore publikoaren jarduna gardenagoa izan dadin, herritarren interesekotzat jotzen diren gainerako informazio publiko guztiak argitaratzea sustatuko da. Ildo horretan, sarrien eskatzen diren informazioak argitaratu beharko dira.

2. Aurrekoa gorabehera, Foru Administrazioak informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabili dutenei emandako informazio guztiak argitaratuko ditu, ahalbide tekniko eta juridikoek aukera ematen dioten neurrian.

28. artikulua. Gardentasunari eta informazio publikoaren eskuragarritasunari egindako ebaluazioaren publikotasuna

1. Urtero, lehenengo hiruhilekoan, Arabako Foru Aldundian gardentasuna koordinatzeko ardura esleituta daukan sailak txostena egingo du aurreko urtean foru arau honetako III. kapituluaren betez egindako lanari buruz.

2. Txosten horretan datu hauek adierazi behar dira gutxienez:

a) Arabako Foru Aldundiko sail bakoitzak eta foru sektore publikoko gainerako erakunde bakoitzak noraino bete dituen publikotasun aktiboaren arloko betebeharrak.

b) Gobernu Irekiaren Atarian gehien kontsultatutako edukiak.

c) Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea nola erabili den 3.1 artikuluan aipatzen diren subjektuetako bakoitzaren aurrean eta Arabako Foru Aldundiko zerbitzu bakoitzean: aurkeztutako eskaeren kopurua; ebatzitako eskaeren kopurua; ebazteko batez besteko epea; osorik, zati batean edo hirugarren pertsonen aurkakotasunarekin baietsitako eskaeren kopurua; ezetsitako eta ez onartutako eskaeren kopurua; zati batean edo hirugarren pertsonen aurkakotasunarekin baiesteko arrazoiak, ezesteko arrazoiak eta ez onartzeko arrazoiak; sarrien eskatutako informazioa; eta eskatzailearen profila (adin tartea, sexua, eta eskaeran erabilitako hizkuntza).

d) Gardentasunaren arloko foru-araudia aldatzeko iradokizunak.

3. Aurreko idatz zatian ezartzen denaren ondorioetarako, Arabako Foru Aldundiko sailek eta hirugarren artikuluko 1. idatz zatian aipatzen diren gainerako subjektuek gardentasunaren

koordinazioa esleituta daukan sailari igorri beharko diote berak txostena egiteko eskatzen dien informazioa, urteko lehenengo bi hiletan.

4. Txosten hori Foru Gobernu Kontseiluari aurkeztu eta gero horrek Arabako Batzar Nagusiei bidaliko die eta foru arau honetan ezartzen den Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuko da.

29. artikulua. Publikotasun aktiboaren edukiak eta historikoa pixkanaka eranstea

1. Hirugarren artikuluko 1. idatz zatian aipatzen diren subjektuek neurri egokiak hartuko dituzte publikotasun aktiboa behar duen informazioa pixkanaka Gobernu Irekiaren Atarian jartzeko, ahalik eta modurik zabalena eta sistematikoenean.

2. Gobernu Irekiaren Atariak, 4. artikuluan arautzen denak, argitaratu ahala gaurkotasuna galtzen duen informazioaren historikoa gordeko du.

3. Foru Gobernu Kontseiluak araudi bidez finkatuko du noiz sartu eta ezabatu behar den informazioa Gobernu Irekiaren Atarian, hau da, zenbat iraun behar duen informazioak bertan.

Hirugarren atala: informazio publikoa eskuratzeko eskubidea

30. artikulua. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabiltzea

Pertsona guztiek informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabili ahal izango dute 3.1 artikuluan aipatzen diren subjektuen aurrean. Eskubide horren erabilera, prozedura barne, oinarritzko legerian ezartzen denaren eta kapitulu honetan ezartzen denaren bidez arautuko da.

31. artikulua. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabiltzeko mugak

1. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea mugatu edo ukatu egingo da oinarritzko legerian ezartzen diren arrazoiengatik eta bertan adierazitako moduan.

2. Mugen aplikazioa justifikatua eta mugen babes helburuaren eta xedearen neurrikoa izango da, eta kontuan hartuko ditu kasu zehatz bakoitzaren inguruabarrak, batez ere ba ote dagoen informazioa eskuratzea justifikatzeko moduko interes publiko edo pribaturik.

3. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabiltzeko mugak, nolana ere, legeek zehazten duten epean edo haiek justifikatzen dituen arrazoiak dirauen bitartean bakarrik izango dira aplikagarriak.

4. Informazio publikoa eskuratzea ukatu ahal izango da, betiere arrazoi sendoekin eta gatzkan diren interesak neurtu ondoren, ondorengo arloetako batean egiazko eta benetako kaltea egiten dela egiaztatzen bada:

a) Segurtasun publikoa.

b) Delituen eta arau-hauste administratiboen prebentzioa, ikerketa eta zigorra (arau-haustea larria edo oso larria bada).

c) Zaintza, ikuskaritza eta kontroleko zeregin administratiboak.

d) Sekretu profesionala eta jabetza intelektuala eta industrialak.

e) Ingurumenaren babesa.

f) Interes ekonomiko eta komertzialak.

g) Izaera komertzialeko edo industrialeko datuen isilpekotasuna.

h) Alderdien berdintasuna prozesu judizialean.

i) Bizitza pribatua.

j) Adingabeen babesa.

k) Lege-gaitasuna aldatua duten pertsonen babesa.

5. Muga hauek aplikatuko dira gorde beharreko helburura egokituta, Foru Arau honetan eta aplikagarri den legedi orokorrean ezarritakoaren arabera.

32. artikulua. Eskuratzeko prozedura

1. Arau honetako 3.1 artikuluan aipatzen diren erakundeei informazio eskaerak elektronikoki aurkeztu ahal izateko baliabide egokia ezarriko da Gobernu Irekiaren Atarian (4. artikuluan arautzen da). Eskaeraren eredu normalizatua ere jarriko da atarian, eskubidea erraz erabili ahal izan dadin.

2. Nolanahi ere, informazio publikoa eskuratzeko eskaerak idatziz egin ahal izango dira, paperean; gero, idazkiok Administrazioak edo erakundeak digitalizatuko ditu.

Gainera, eskaerak ahoz egin ahal izango dira Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren eta Herritarren Arretarako Atalaren bulegoetan.

3. Foru Aldundiaren esparruan egitekoa esleituta daukaten administrazio unitateek izapidetuko dute eskaera, egitura organiko eta funtzionalari buruzko kasuan kasuko foru dekretuari jarraituz. Hainbat sailen esku badago, hura (edo haren zati nagusia) prestatu edo sortu duen saileko administrazio unitateari egokituko zaio izapidetzea.

Hori dela eta, zerbitzuek eta sailek ahalik eta laguntza gehien emango diote administrazio unitate izapidetzaileari eta lehentasunik handiena emango diete hark jasotzen dituzten eskaerei.

4. Sektore publikoko gainerako erakundeen kasuan, erakundeak atxikita dauzkan saileko administrazio unitateak izapidetuko ditu eskaerak, egitura organiko eta funtzionalari buruzko foru dekretuari jarraituz, eta unitate horri ahalik eta laguntza gehien emango diote, lehentasunik handienarekin.

5. Zerbitzu publikoak egiten edo administrazio ahalak erabiltzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoek daukaten informazioa eskatzen denean, pertsona horiekin lotura duen saileko administrazio unitateak izapidetuko ditu eskaerak.

6. Informazioa eskatzen zaion erakundeak informazio hori ez badauka eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko beste erakunde batek badauka, hamar eguneko epean beste erakunde horri igorriko dio eskaera, erantzuteko epea etengo du eta eskatzaileari igorpena jakinaraziko dio. Erakunde hartzaileak arau hauetan ezarritako moduan izapidetu eta ebatzi beharko du eskaera.

33. artikulua. Informazio eskaera akastunak zuzentzea

1. Informazioa eskuratzeko eskaerak akatsik badauka edo ondo zehaztuta ez badago, eskatzaileari zer gertatzen den adieraziko zaio, eskaera anbiguotzat edo zalantzarritzat zergatik jotzen den azalduko zaio, hamar egun balioduneko epealdia emango zaio eskaera zuzentzeko, eta horretarako laguntza eskainiko zaio.

2. Eskaera zuzentzeak ebazpena emateko epealdia etengo du.

3. Hamar eguneko epealdian eskaera zuzendu ezean, eskatzaileak atzera egin duela pentsatuko da eta eskaera artxibatuko da. Hori gorabehera, eskatzaileak beste eskaera bat aurkeztu ahal izango du.

34. artikulua. Informazio publikoa eskuratzeko eskaerak ez onartzeko arrazoien aplikaziorako arau bereziak

1. Informazio publikoa eskuratzeko eskaerak ez onartzeko oinarritzko legerian aurreikusten diren arrazoiak aplikatuko dira.

2. Arau hauek edukiko dira kontuan informazio eskaerak ez onartzeko oinarritzko legerian aurreikusten diren arrazoiak aplikatzean:

a) Eskuragarritasunik handienaren printzipioa, 16. artikuluan arautzen dena, kontuan edukiz, ez onartzeko arrazoien interpretazio murriztailea egingo da.

b) Informazioa oraindik prestatzen ari delako edo argitaratze bidean dagoelako, eskaera onartzen ez bada, ez onartzeko ebazpenean zehaztu egin beharko da zein organo ari den informazioa prestatzen eta noizko aurreikusten den hura amaitzea eta eskuragarri jartzea.

c) Nahitaezko txostenak ez dira informazio osagarri edo lagungarritzat joko.

d) Eskatutako informazioa erabilera arrunteko tratamendu informatizaturen baten bidez lortzeko modua dagoenean, ez da informazioa berriz lantzeko aukerarik onartuko.

35. artikulua. Ebazpena

1. Eskaera izapidetzen duen saileko titularrak edukiko du hura ebazteko eskumena, 32. artikuluan ezartzen denarekin bat etorritik.

2. Eskaera jasotzen denetik hilabete pasatu baino lehen jakinarazi beharko da ebazpena. Eskatutako informazioa bolumen edota konplexutasun handikoa bada, epealdi hori hilabete luzatu ahal izango da. Hala denean, lehenengo hamar egunetan, eskatzaileari epea luzatu dela jakinarazi beharko zaio eta zergatik luzatu den azaldu.

3. Foru arau honen aplikazio eremutik kanpoko administrazio edo erakunderen batek zati batean landutako edo sortutako informazioa ematen bada, ebazpenean inguruabar hori azalduko da eta informazioaren jatorrizko iturriaren edo iturrien berri emango da.

4. Arau orokor gisa, baiezko ebazpenaren jakinarazpenarekin batera, eskatutako informazioa ere emango da, edo informazio hori berehala eskuratzeko sarbidea, salbu eta legez aurreikusitako arrazoiren batengatik atzeratu beharra dagoenean edo informazioaren ezaugarriek nahiz hura eskuratzeko bideek berehalakotasun hori eragozten dutenean. Informazioa berehala eskuratu ezin bada, ebazpenean berariaz azalduko da noiz eta nola eskuratu ahal izango den, eta horretarako inolaz ere ez da itxaron beharko hamar egun baino luzeago.

5. Presuntziozko edo berariazko ebazpenaren aurka, oinarrizko legerian ezarritakoarekin bat, aukerako erreklamazioa jarri ahal izango da, administrazioarekiko auzien bidean hura aurkaratu aurretik, lehenengo xedapen gehigarrian aipatzen den organoari zuzenduta.

36. artikulua. Informazio publikoa eskuratzeko modua

1. Oro har, eskatutako informazio publikoa eskatzaileak hautatutako eran eta formatuan emango da. Ez badu ezer zehazten, lehentasunez bide elektronikotik emango zaio, ahal dela.

2. Aurreko idatz zatian xedatzen dena gorabehera, eskatzaileak adierazitako eraren eta formatuaren ordezkari batzuk erabili ahal izango dira informazioa emateko, kasu hauetan:

a) Informazioa lehendik argitaratuta dagoenean eta eskuratzen erraza denean. Horrelakotan, ebazpenean informazioa nola eskuratu adierazi ahal izango da, besterik gabe, betiere behar den teknologiarik edo informazio hori eskuratzeko ezagutza teknikorik ez duen herritarra kaltetu gabe.

b) Informazioa «in situ» eskuratzuz gero jatorrizko euskarria galdu edo hondatzeko arriskua dagoenean.

c) Hautatutako formatuan kopia ezin denean, ez dagoelako horretarako tresna teknikorik eskura.

d) Informazioa eskuratzeko hautatutako moduak jabetza intelektualerako eskubideari eragin diezaiokeenean.

e) Altxor publikorako merkeagoa edo errazagoa denean.

3. Foru Aldundia eta arau honetako 3.1 artikuluan aipatzen diren gainerako erakundeak saiatuko dira daukaten informazio publikoa erreproduzio eta sarbide errazeko era edo formatuetan gordetzen, telekomunikazio informatikoen bitartez edo bestelako bide elektronikotatik erraz eskuratu ahal izateko moduan.

4. Informazioa doan eskuratuko da. Hala ere, kopiak ematen badira edo informazioa jatorri-zko formatutik beste batera aldatzen bada, ordaintzeko eskatu ahal izango da, kasuan kasuko arauetan ezarritakoari jarraituz. Ordaindu beharrekoa ez da benetako kostua baino gehiago izango.

5. Gobernu Irekiaren Atarian (4. artikuluan arautzen da) aplikatu beharreko tasa eta prezioen zerrenda argitaratuko da, eta azalduko da zer kasutan ez den ordaindu behar. Atarira sartu ezin dira herritarrentzako behar den erantzuna emateko, bestelako komunikazio-bide batzuk ezarriko dira, Lurralde Historiko herritar guztiengana heldu dadin informazio hori.

Laugarren atala: antolaketa

37. artikulua. Salletako informazio unitateak

1. Foru Aldundiko sail bakoitzaren barruan, egitura organiko eta funtzionalari buruzko kasuan kasuko foru dekretuan izendatutako administrazio unitateek beteko dituzte honako eginkizun hauek edo hauetariko batzuk, publikotasun aktiboari eta informazio publikoa eskuratzeko eskubideari dagokienez:

a) Publikotasun aktiboa behar duen informazioa bildu eta Gobernu Irekiaren Atariaren bitartez aditzera ematea.

b) Informazioa eskuratzeko eskaerak izapidetzea eta ebazteko proposamena egitea.

c) Barruko izapidetak egitea, eskatzaileak informazioa eskuratu dezan.

d) Sailean foru arau honek izandako betetze mailari buruzko informazioa prestatzea, 28. artikuluan aipatzen den urteko txostenerako.

e) Oro har, sailaren barruan gardentasuna sustatzea.

2. Saileko gainerako zerbitzuek ahalik eta laguntza gehien emango diote goiko idatz zatian aipatutako administrazio unitateari, eta lehentasunik handienarekin.

3. Zerbitzu bakoitzak, publikotasun aktiboa behar duen edo norbaitek eskatu duen informazio publikoren bat badauka, bere sailean gardentasunaren ardura duen administrazio unitateari emango dio, edo, hala behar denean, informazioaren eskatzaileari berari emango dio.

38. artikulua. Sailen arteko koordinazioa

1. Aurreko artikuluan aipatzen diren administrazio unitateetako arduradunek bilerak egingo dituzte egokitzat jotzen duten maiztasunarekin, publikotasun aktiboari eta informazio publikoaren eskuragarritasunari begira egindako eta egin beharreko jarduketak elkarri azaltzeko, baloratzeko eta koordinatzeko eta gardentasunaren ezarpenerako irizpide homogeenak finkatzeko.

Bereziki, 28. artikuluan ezartzen dena betez gardentasuna koordinatzeko ardura esleituta daukan sailak egin beharreko txostena onartzeko bilduko dira.

2. Gardentasunaren arloko koordinazioa esleituta daukan sailak egingo ditu bilera deiak.

Bosgarren atala: gardentasuna sustatzea eta bultzatzea

39. artikulua. Gardentasuna eta foru antolaketa

1. Kontuan hartuta gardentasunak berekin dakarrela ezinbestean jardun administratiboa apurka-apurka aldatu beharra, foru sektore publikoko erakundeak berariazko programak sustatuko ditu antolaketa egiturak foru arau honetan ezartzen diren helburuak betetzeko moldatzeko behar diren antolaketa soluzioak proposatzeko, gardentasunaren politikak egitura administratiboetan, lan prozeduretan eta lan sistemetan daukan eragina aztertu ondoren.

2. Halaber, Foru Aldundiak gardentasunaren inguruko trebakuntza programak, gaikuntza programak eta aprobetxamendu programak sustatuko ditu Arabako foru sektore publikoko erakundeetako zuzendaritza langileentzat zein gainerako langileentzat.

40. artikulua. Gardentasuna eta herritarrak

1. Gida bat sortuko da herritarrei beren eskubideen berri emateko (informazio publikoa eskuratzeko eskubidea nola erabili azaltzeko, batik bat) eta horretaz sentsibilizatzeko kanpainak prestatuko dira Arabako Lurralde Historikoko erakundeetarako eta arabarrentzat.

2. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen inguruan aurkezten diren zalantzak eta galderak gardentasunaren arloko koordinazioa esleitzen zaion Foru Aldundiko sailak artatuko ditu.

IV. KAPITULUA

HERRITARREN PARTE HARTZEA ETA PARTE HARTZEKO PROZESUAK

Lehenengo atala: printzipio orokorrak

41. artikulua. Parte hartzearen helburua eta antolaketa

1. Hauxe da kapitulu honen xedea: herritarrek banaka nahiz taldean Foru Gobernuaren politika publikoetan parte hartzerik zabalena izan dezaten eta, halaber, Arabako Lurralde Historikoko politikan, kulturean, ekonomian eta gizartearen parte har dezaten sustatu eta bermatuko duten baldintzak ezarri eta arautzea.

2. Parte hartze horren helburua da esku hartze publikoa eskatzen duten beharrianak hobeto asetzea eta herritarrak ere inplikatzeko arazo publikoei buruzko erabakiak hartzean.

3. Parte hartzeko modu horiek ezingo dituzte inola ere murriztu kasu bakoitzean eskumena daukaten administrazio, ordezkaritza edo gobernu organoei legez dagozkien erabakitzeke ahalmenak.

4. Kapitulu honetan xedatzen denak ez du inola ere ordeztuko araudi indardunean herritarrei aitortzen zaizkien parte hartzeko edo laguntzeko eskubideak handitzen dituen beste edozein xedapen, eta ez dio ezertan eragingo. Era berean, kapitulu honen edukiak ez du aldaraziko beste bide batzuetatik eta beste xede batzuetarako sustatzen den herritarren parte hartzea.

5. Betiere artikulua honen aplikazio eremutik kanpo daude:

a) Presako arrazoiengatik izapidetzen edo onartzen diren xedapenak, planak edo programak.

b) Antolaketa izaera, prozedura izaera edo antzeko izaera soilik dutenak, bai eta Arabako Foru Aldundiko organoak, karguak edo egitura organikoak eta foru sektore publikoko gainerakoak arautzen dituzten xedapenak ere.

c) Segurtasun publikoa, larrialdietako babes zibila edo giza bizien salbamendua xede bakarra duten plan eta programa orokorrak.

42. artikulua. Interesdun izatea, eta parte hartzeko prozesuak

1. Parte hartzearen arloan arau honetan jasotako eskubideak erabiltzen direnean, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko erakundeek bermatu egin beharko dute eskuragarritasun printzipioa betetzea; halaber, herritarren gizarteratze osorako baldintzak bermatu beharko dituzte, gizonezko eta emakumezko herritarren arteko tratatu berdintasuna sustatuz, bai eta interesa agertzen duten gizarteko kolektibo eta taldeenak ere, iraunkorrak izan nahiz ez.

Horretarako parte hartze prozesuak antolatuko dira, eta horiek, zabalkunde publikoaren bitartez, eztabaida eta erkatzea ahalbidetuko dituzte ikuspuntu eta interes desberdinetatik, adostasunak bilatuko dituzte eta ateratako ondorioak eta hartutako erabakiak arrazoituko dituzte.

2. Parte hartzeko izapidea aurreikusten den prozedura gauzatzeko, interesdunak dira administrazio prozedura erkidearen oinarriko araudian ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten pertsonak eta taldeak.

Ildo horretan, interesdun izan daitezke entitateak, elkarteak, gizarte erakundeak edo taldeak, bai eta plataformak, foroak edo herritar sareak ere, inguruabarren arabera eratuak eta nortasun

juridikorik gabeak, baldin eta aurreko paragrafoan azaldutako betekizunak edo arau honetan jasotako gainerakoak betetzen badituzte.

Nolanahi ere, interesdun izango dira Arabako Lurralde Historikoko herritarrek eta askotariko interesak ordezkatzeko dituzten taldeek parte hartzeko eta laguntzeko Erregistroan inskribatutakoak (erregistro hori arau honetan ezartzen da), baldin eta, euren esparru deklaratuaren arabera, parte hartzeko prozesuan parte hartu behar badute.

3. Parte hartzeko izapidea aurreikusten den prozeduraren hasieran, ekimena sustatzen duen Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko erakundeak alde aurretik eta behin-behinean zehaztu beharko du zer herritar eta talde diren interesdun entzunaldiko izapidearen ondorioetarako. Hori gorabehera, gero beste interesdun batzuk kreditatu ahal izango dira.

4. Kapitulu honek parte hartzeko eskubidea aitortzen duen prozedurei dagokienez, eta beste arauen batek besterik xedatu ezean, parte hartzeko eskubidea interesdunetara bakarrik mugatu daiteke.

43. artikulua. Arabako Lurralde Historikoko askotariko interesak ordezkatzeko dituzten taldeak

Kapitulu honetako xedapenak aplikatuko zaizkie, halaber, askotariko interesak ordezkatzeko dituzten talde hauei:

a) Entitate kolektiboak: pertsona juridikoak, irabazteko xederik gabekoak, haien era juridikoa eta izaera edozein direla ere, interes kolektiboak edo euren kideen interesak defendatzea xede dutenak, izaera orokorrekoak nahiz sektorialekoak, euren jarduerak Arabako Lurralde Historikokoan egiten dituztenak.

b) Interes taldeak: erakundeak eta pertsonak, edozein izanda ere haien estatutu juridikoa, modu profesionalean aritzen direnak, euren jardueraren zati gisa, zuzenean edo zeharka eragiten politikak edo xedapenak prestatzeko prozesuetan edo horien aplikazioan eta foru sektore publikoko erabakiak hartzeko prozesuetan, eta euren jarduerak Arabako Lurralde Historikokoan egiten dituztenak.

c) Hausnarketa taldeak: erakunde akademikoak eta ikerkuntzakoak, euren jarduerak Arabako Lurralde Historikokoan egiten dituztenak.

44. artikulua. Arabako Lurralde Historikoko herritarrek eta interes jakin batzuk ordezkatzeko dituzten taldeek parte hartzeko eta lankide izateko Erregistroa

1. Arabako Lurralde Historikoko herritarrek eta interes jakin batzuk ordezkatzeko dituzten taldeek parte hartzeko eta laguntzeko Erregistroa sortzen da. Bertan honako hauek inskribatuko dira, borondatez, atal berezietan:

a) Aurreko artikuluan aipatutako entitateak eta taldeak, parte hartu nahi badute kapitulu honetako parte hartze prozesuetan, parte hartzearen xede diren interes kolektiboak edo beren kideenak, bezeroenak, akademikoak nahiz zientzialarienak ordezkatzuz.

b) Asmo hori bera duten herritarrak, entitateak, elkarteak, gizarte erakundeak, taldeak, plataformak, foroak edo herritar sareak.

2. Inskribatzeko behar diren gainontzeko baldintzak betetzeaz gainera horiek guztiek beren interesak non agertzen diren zehaztuko dute (sektore esparrua edo esparru orokorra, lurralde mailakoa edo bestelakoa).

3. Erregistroan inskribatzeak berekin dakar garaiz eta zehatz eman behar izatea arau honetan ezartzen diren parte hartzeko prozesuen berri, eskubideak erabat erabiltzeko. Horrek ez du esan nahi interesak ordezkatzeko dituzten inskribatu gabeko beste talde edo entitate batzuk baztertuko direnik.

4. Prozesu horietan parte hartzeak ez du ordezkaturiko entzunaldi publikoaren izapidea, arautegi egokiaren arabera izapide hori nahitaezkoa bada eta, arautegi berari jarraituz, ordezkari diren pertsonak edo taldeak interesdunak badira.

5. Arabako Lurralde Historikoko herritarrek eta interes jakin batzuk ordezkatzeko dituzten taldeek parte hartzeko eta lankide izateko Erregistroa publikoa da. Herritarren parte hartzearen arloko eskumena daukan sailari atxikita egongo da.

6. Arauz zehaztuko dira inskripzio betekizunak, idazpenen edukia, iristeko moduak eta inskribatutako taldeen parte hartzea justifikatzen duen ekimen bakoitza bultzatzen duten sailekiko koordinazioa.

45. artikulua. Herritarren parte hartzearen arloan foru sektore publikoak oinarritzat hartuko dituen printzipioak

Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoak, herritarren parte hartzearen sustapenean, printzipio hauek hartu behar ditu oinarritzat:

a) Arazo publikoetan berdintasunarekin, informaturik eta erantzukizunarekin parte hartzeko eskubidea bermatzea.

b) Herritarren parte hartzea emakumeen eta gizonen artean orekatua izan dadin eta genero berdintasunaren xedera bideratu dadin sustatzea.

c) Politika publikoetan erabakiak hartu aurretik herritarrek banaka edo taldean parte hartzea sustatuko duten mekanismoak bultzatu eta garatzea.

d) Herritarren parte hartzea errazteko eta bermatzeko behar diren baldintzak sortzea.

e) Herritarrek parte hartzeko tresnak sustatzea, foru sektore publikoak herritarrekin eta herritarrek elkarrekin eragin trukea izatea eta hitz egitea ahalbidetuko duten komunikazio bideen bitartez.

f) Herritarrek parte hartzeko prozesuak garatzea, politika publikoen izaerari erreparatuta.

g) Foru sektore publikoaren eta herritarren arteko lankidetzarako formulak abian jartzea eta bizkortzea.

h) Araban elkarte sarea sustatu eta indartzea, herritarren konpromisoaren adierazpen kolektiboa den aldetik.

i) Herritarrei arazo publikoetan parte hartzea eragozten edo zailtzen dieten oztopoak kentzea.

46. artikulua. Parte hartzeko prozedura eta tresna guztien berme komunak

1. Parte hartzea eraginkorra izan dadin, parte hartzeko prozeduretan jarduten duten pertsonak eta taldeek berme hauek izan behar dituzte:

a) Aukera izatea behar beste denbora lehenago ezagutu ahal izateko euren intereseko prozedurak, halakoak izapidetzen direnean, eta horietan parte hartzeko ezarritako bideak.

b) Parte hartzeko prozeduraren xedeak eta norainokoa ezagutzea, bai eta parte hartzeko modua ere.

c) Alegazioak eta oharrek egitea eta ordezkari aukerak proposatzea, oraindik aukera guztiak zabalik daudela eta politika publiko, programa edo xedapen orokorreari buruzko erabakia hartu baino lehen.

d) Foru sektore publikoak parte hartzailearen nortasuna isilpean gordeko duela bermatzea, parte hartzaileak hala eskatzen badu eta parte hartzeko erabilitako tresnak horretarako bidea ematen badu. Aurrekoa ez zaie aplikatuko interesak ordezkatzeko dituzten taldeei, arau honetan aipatzen diren horiei.

e) Parte hartzeko prozesuan jardun duten taldeak eta, laburbilduta behintzat, pertsonak ezagutzea, eta egin dituzten ekarpen nagusiak ere bai.

2. Helburu berarekin, ondoko eskubide hauek aitortzen zaizkie:

a) Kasuan kasuko erakunde publikoak haien alegazioak, oharrak eta proposamenak aztertzea eta kontuan hartzea, eragindako gainerako interes publikoekin batera.

b) Euren parte hartu duten prozeduraren behin betiko emaitza euren jakinaraztea edo jendarean aditzera ematea. Hartutako erabakiaren oinarri diren arrazoi eta gogoeten azalpenaren barruan, parte hartze publikoaren prozesuari dagokion informazioa eman behar da, eta adierazi behar da nola hartu diren kontuan parte hartzaileen ekarpenak edo zergatik baztertu diren.

3. Artikulu honetan ezartzen denak ez du inola ere mugatuko foru arau honetan herritarrei aitortutako parte hartzeko eskubideak erabiltzeko araubidea heda dezakeen beste edozein xedapen.

47. artikulua. Herritarrek parte hartzeko eta laguntzeko tresnak

1. Kapitulu honetan onartzen diren eskubideak eta bermeak parte hartzeko hainbat tresnaren bidez gauzatu dira. Hona tresna horien xedeak: pertsona interesdunen, askotariko interesak ordezkatzen dituzten taldeen eta herritar guztien bereizkeriarik gabeko parte hartzea legezkotu, bideratu eta egituratzea. Hori dela eta, arazo publikoetan parte hartzeko eta laguntzeko zailtasunik handiena agertzen duten gizarteko sektoreen inplikazioa modu aktiboan sustatu da.

2. Helburu horrekin, Arabako Foru Aldundiak askotariko tresnak erabiltzea sustatu du, besteak beste inkestak, zundatzeak, kontsulta foroak, eztabaidarako eta kontsultarako guneak, berresleak ez diren kontsulta orokorrak edo sektorialak, kontsulta irekiak, herritarren panelak, herri epaimahaiak, eztabaidetan parte hartzeko prozesuak eta egokiak suertatzen diren gainerako tresnak.

Horiek guztiak modu presentzialean antolatu ahal izango dira, edo komunikazioaren teknologia egokiak baliatu ahal izango dira, baita Interneten lehendik badirenak eta telekomunikazio mugikorretako gailuetarako garatutakoak ere, beste batzuen artean.

3. Foru arau honetan xedatzen denarekin bat etorritik, araudi bidez garatu dira tresna bakoitzari aplikatu beharreko arauak, bai eta kasu bakoitzean herritarrek parte hartzeko eta laguntzeko eraginkorrena gertatzen den tresna erabiltzeko irizpideak ere. Ahalik eta biztanle gehienengana eta intereseko gizarte taldeengana iritsiko da, ahalik eta kostu txikienarekin, eta dena delako plan, programa edo proiektuaren garrantziari eta konplexutasunari dagokion moduan.

4. Herritarrek dinamizatutako kontsultarako guneak, betiere, lurralde mailakoak izan daitezke, Arabako Lurralde Historikoak egun duen kuadrillen arabera antolaketara egokituta, edo sektorialak, lurralde osoko herritarrentzat interesekoak diren gaiei buruzkoak.

Gune horietan parte hartu ahal izango dute herritarrek, norbanako gisa edo beren interesak ordezkatzen dituzten kolektiboen bidez, guneetan landuko diren gaietan adituak diren pertsonak, bai eta Arabako Batzar Nagusietan ordezkatuta diren talde politikoetako ordezkariek, azken hauek entzule gisa.

48. artikulua. Parte hartzea sustatzeko neurriak

1. Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko erakundeek sentsibilizazio eta prestakuntza programak sustatu eta egingo dituzte bai herritarrentzat bai euren zerbitzuko langileentzat, herritarren elkarteak, herritarren parte hartzea eta garapen komunitarioarako lankidetzako jardura pribatuak edo publiko-pribatuak sustatze aldera, zeinetan genero ikuspegia txertatu da, parte hartzeko prozedurak eta tresnak ezagutarazteko eta horien erabilera sustatzeko.

2. Helburu berarekin, herritarren parte hartzearen arloan eskumena duen sailak herritarrentzako eta herritarren entitateentzako prestakuntza programak egingo eta sustatuko ditu, arreta berezia jarriz arau honetan araututako eskubide, berme eta tresnei. Besteak beste, baliabide espezifikoak bultzatuko dira herritarren parte-hartzerako sarbidea eta ulermena errazteko politiken eta eraginen planifikazioan eta ebaluazioan.

3. Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoak parte hartzea sustatuko du bitarteko elektronikoen bidez eta Administrazio Elektronikoa garatuz. Horretarako, eztabaidarako tresna presentzialez gainera, informazioaren eta komunikazioaren teknologia egokien garapena eta erabilera sustatuko ditu Interneten edo beste ingurune birtual batzuetan. Parte hartzeko zailtasunik handiena duten herritarrei emango zaie arreta, betiere.

49. artikulua. Herritarrek parte hartzeari eta laguntzeari buruzko txostena

1. Herritarren parte hartzearen arloan eskumena daukan sailak urtero txostena egingo du, arau hau betetzeko herritarrek parte har dezaten garatu diren tresnei buruz eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoa osatzen duten erakundeek horiek erabiltzeko jardunari buruz.

Txostenean herritarren parte hartze maila, erabilitako bitartekoak eta emaitzak ebaluatzeko informazio garrantzitsua jasoko da, eta herritarrek parte hartzeko bitartekoak hobetzeko prozesuak ezartzeko beharrezko diren neurri guztiak hartuko dira kontuan. Behar izanez gero, iradokizunak egingo dira berriazko araudia aldatzeko.

Saileko gainerako zerbitzuek ahalik eta gehien lagunduko diote txostena egin behar duen administrazio unitateari, eta lehentasunik handienarekin.

2. Txosten hori Foru Gobernu Kontseiluari aurkeztu eta gero horrek Arabako Batzar Nagusiei bidaliko die eta foru arau honetan ezartzen den Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuko da.

Bigarren atala: herritarrek parte hartzeko eskubide zehatzak

50. artikulua. Politika publikoen diseinuan eta horien emaitzen eta zerbitzu publikoen kalitatearen ebaluazioan parte hartzeko eskubidea

1. Herritarrek politika publikoen diseinuaren fasean ekarpenak egiteko behar diren baliabideak jarriko dira.

2. Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko erakundeek herritarrek parte hartzea sustatuko dute; horretarako, aldian-aldian, jasotzen dituzten zerbitzu publikoekin zenbateraino dauden pozik galdetuko diete eta emaitzak ebaluatzeko eskatuko diete, arau honetan ezartzen den bezala.

Kontsulta horien emaitzak ahalik gehien zabaldu beharko dira Administrazioak bere jardunaren berri emateko erabiltzen dituen euskarri guztiez baliatuz.

51. artikulua. Jendaurrean jartzeko izapideetan alegazioak eta oharak aurkezteko eskubidea

Herritarrei informazioa emateko aldia amaitutakoan txostena egin beharko da, eta bertan egindako jarduketan berri eman beharko da, aurkeztutako alegazioei eta oharrei dagokienez.

52. artikulua. Araugintzako ekimenak sustatzeko eskubidea

1. Arabako Lurralde Historikoko hautesle erroldan inskribatutako herritarrek eta Arabako Lurralde Historikoko herritarrek eta askotariko interesak ordezkatzen dituzten taldeek parte hartzeko eta laguntzeko Erregistroan inskribatutako askotariko interesen ordezkaritza taldeek eskubidea dute araugintzako ekimenak sustatzeko euren eskubide eta interes legítimoak, eskubide eta interes kolektiboak, euren kideenak edo euren ordezkatuenak ukitzen dituzten gaiak buruz.

2. Salbuetsita daude uztailaren 4ko 15/1986 Foru Arauan araugintzako herri ekimenaren bitartez izapidetzeko aukeratik salbuesten diren gaiak.

3. Proposatutako herri ekimen baten aldeko adierazpenen bilketari ekin aurretik, sustatzaileek hura erregistratu behar dute herritarren parte hartzearen arloan eskumena duen Foru Aldundiko sailean. Horretarako idazkia aurkeztuko dute, eta bertan jasoko dute proposatutako testua, araugintzako herri ekimenetarako eskatzen diren memoria eta informazioekin batera. Gainera, arau honetan araututako interesak ordezkatzeko taldeen kasuan, zein kolektiboren izenean diharduten, haren ordezkaritza badutela frogatu beharko dute. Azken kasu horretan ere, ordea, uztailearen 4ko 15/1986 Foru Arauak, Arabako Batzar Nagusietako araugintzako herri ekimena arautzen duenak, ezarritako betekizun guztiak aplikatu beharko dira, ekimena sustatzen duen batzordearen osaerari, erantzukizunei, akatsak zuzentzeko edo ekimena kentzeko eskubideei eta batzordearen inguruko gainerako kontuei dagokienez.

4. Aurreko idatz zatian aipatzen den informazioa jasotzen denetik hogeita hamar egun pasatu baino lehen herritarren parte hartzearen arloko eskumena daukan Foru Aldundiko sailak hauxe egingo du:

a) Proposatutako herri ekimena erregistratuko du eta aditzera emango du erregistro zenbaki bakarrekin.

b) Berrespena bidaliko dio batzorde sustatzaileari.

c) Egokitzat jotzen duenean, Foru Aldundiko sailei behar diren azterlan eta txostenak eskatu ahal izango dizkie, bereziki ekimenaren onargarritasunari buruzkoak eta arauen bideragarritasunari edo kostuari buruzkoak.

d) Erabaki proposamena aurkeztuko dio Foru Gobernu Kontseiluari; edukia hurrengo idatz zatian azaltzen da.

5. Azterlanak eta txostenak ikusirik, Aldundiak igorritako dokumentazioa aztertuko du eta erregistratzen denetik hasita beste hogeita hamar egun pasatu baino lehen haren onargarritasunaz erabakiko du, arau honetan ezarritakoaren arabera hura izapidetzearen ondorioetarako, 15/1986 Foru Arauan ezarritako onartezintasun kausetan oinarrituta.

Hartutako erabakia, bildutako azterlan eta txostenekin batera, batzorde sustatzaileari jakinaraziko zaio ondorio guztietarako. Kasua bada, ez onartzeko arrazoiak azalduko zaizkio, halakorik egonez gero, eta batzorde sustatzailearen eskura dauden errekurtsio judizialen eta judizioz kanpokoen berri emango zaio. Ebazpen hori ALHAOn ere argitaratuko da, baita aurreko idatz zatian aipatzen den herri ekimenen erregistroan ere. Batzorde sustatzaileari zein egunetan jakinarazi zaion adieraziko da.

6. Proposamena onartuz gero, herritarren parte hartzearen arloan eskumena daukan Arabako Foru Aldundiko sailak Probintziako Hauteskunde Batzordeari jakinaraziko dio, sinadurak biltzeko prozeduraren arauzkotasuna gainbegiratzeko neurriak ezarri ahal izan ditzan, 15/1986 Foru Arauan xedatzen denarekin bat etorritz.

7. Behin 15/1986 Foru Arauan eskatzen den gutxieneko sinadura kopurua lortu izanaren ziurtagiria jaso eta gero, Foru Aldundiak herri ekimenaren xedearen gaineko eskumena duen sailari helaraziko dio, jasotze horren egunetik hilabete pasatu baino lehen izapidetzen has dadin.

Hasiera horretatik aurrera, testua, bi hizkuntza ofizialetan, aldeztatik onartutako xedapen proiektuetarako aurreikusi den bezala izapidetuko da. Egin beharreko negoziazio, entzunaldi eta kontsulta izapideak egingo dira.

8. Xedapen orokorraren proiektua organo eskudunari onartzeko igorri baino lehen, sustatzaileek entzunaldi publiko batean aurkeztu ahal izango dute herri ekimena, eta han euren iritzia azaldu ahal izango dute prozeduran zehar kontsulta egin zaien erakunde eta agenteek proposatutako aldaketari buruz.

9. Egindako izapideak, txostenak, kontsultak, entzunaldiak eta abarrekoak ikusirik, izapidetzearen ardura duen sailak proposamen bat aurkeztuko dio organo eskudunari, onartzeko. Bertan:

a) Testu artikulatua xedapen orokor gisa onartzea proposatuko du, prozedura ikusita egokitzen jotzen dituen aldatetekin; edo, kasua bada, foru arau proiektu gisa aintzat hartzea proposatuko du.

b) Herri ekimena ez onartzea proposatuko du.

10. Organo eskudunak ekimenari buruz hartutako erabakia proposatzaileei jakinaraziko zaie.

11. Batzorde sustatzaileari proposamenaren zabalkundean eta sinadura bilketan egin dituen gastuak ordainduko zaizkio baldin eta, 15/1986 Foru Arauan eskatzen diren betekizunak beterik, hura onartzen bada 5. idatz zatian xedatzen denarekin bat etorritz.

53. artikulua. Xedapen orokorrak prestatzen parte hartzeko eskubidea

1. Arabako Foru Aldundiak ekarpen edo iradokizunak hartzeko bideak ezarriko ditu, pertsona interesdunek eta askotariko interesak ordezkatzeko dituzten taldeek harremanak izan ahal ditzaten xedapen orokorrak sustatzen dituzten sailekin. Ekarpenei edo iradokizun horiek entzunaldiko edo jendaurreko informazioko izapidearen aurretik igorri beharko dira, edozein unetan, eta izapidetzearen ardura duen organoak kontuan hartuko ditu. Onartu edo baztertu ahal izango ditu, arrazoiak azalduz, eta gero jakitun jarri ahal izango ditu eurak sustatu dituztenak.

2. Aurreko paragrafoan ezarritakoak ez du ordeztuko entzunaldi publikoko izapidea, aplikatu beharreko araudiaren arabera izapide hori nahitaezkoa den kasuetan, eta parte hartzen duena ez du bihurtuko prozeduran interesa duen pertsona.

54. artikulua. Zerbitzu publikoen kalitatea hobetzeko jarduketa proposamenak edo iradokizunak egiteko eskubidea

1. Herritarrek jarduketa proposamenak, hobekuntzak edo iradokizunak aurkezteko eskubidea dute, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoak ematen dituen zerbitzuen funtzionamenduari dagokionez.

2. Foru sektore publikoko erakundeek eskubide hori gauzatzeko bideak antolatuko dituzte eta ematen diren zerbitzuak hobetzen laguntzen duten ekimenen goraipamen publikoa sustatuko dute.

55. artikulua. Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoak herritarren jardueretan lagundu dezan eskatzeko eskubidea

1. Herritarrek eskubidea izango dute foru sektore publikoaren laguntza eskatzeko, Arabako Lurralde Historikoan herritarren parte hartzea sustatzen duten irabazteko xederik gabeko jarduerak egiten direnean.

2. Gaia dela eta eskumena daukan sailari igorriko zaio eskaera, edo, subsidiarioki, herritarren parte hartzearen arloan eskumena daukan sailari. Eskaera horrekin batera, zer jarduera egin nahi den eta nola egingo den azaltzeko memoria aurkeztuko da, besteak beste.

3. Laguntzeko eskaeraz gainera, jardueraren sustatzaileek jarduerarako behar diren baimeak ere eskatu beharko dituzte, araudi indardunaren arabera galdagarriak direnean.

4. Saileko organo eskudunak, aurkeztutako eskaera ikusirik, proposatutako jarduketaren egokitasuna eta bideragarritasuna aztertuko ditu eta ebazpen arrazoitua emango du. Ebazpenean laguntza mota eta, kasua bada, jarduera egiteko dirulaguntzaren zenbatekoa zehaztuko ditu, hura ematea bidezkoa baldin bada; azken kasu horretan, diru-laguntzei buruzko arauak beteko dira, batez ere urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikokoaren dirulaguntzei buruz.

5. Proposatutako jarduera ezarri edo garatze aldera, foru sektore publikoko erakundeek honelako ekarpenak egin ahal izango dituzte, besteak beste: ondasun publikoen aldi baterako edo noizbehinkako lagapena; jarduera egiteko laguntza teknikoa; komunikazio bide instituzionalen bitartez jarduketaren berri zabaltzeko eta ezagutarazteko laguntza; sariak, gorespen edo aipamenak edo antzeko beste neurri batzuk.

Hirugarren atala: gizarteari kontu ematea

56. artikulua. Gizarteari kontu ematea, kontzeptua

Herritarrek, modu interaktiboan, norbanako zein kolektibo gisa, kontuak ematea eskatu ahal izango diete baliabide publikoak kudeatzen edo zerbitzu publikoak ematen dituzten foru-sektore publikoko entitateei, betiere kontu-emate hori jasota ez badago foru-araudiaren bestelako prozedura baten bidez.

57. artikulua. Gizarteari kontu emateren helburuak

Gizarteari kontu emateak, herritarrei foru-instituzioen jardueren berri ematearren eta jarduera horiek herritarrek ebaluatzearren, ondorengo helburu espezifikoak ditu:

- Kudeaketa instituzionalaren eztabaida eta ebaluazioa hurbiltzea.
- Herritarren parte-hartzea eta ahalduntzea bultzatzea instituzioen erabakiei buruz.
- Herritarrei kontuak ematea exijitzeko eta gauzatzeko prozedurak garatzea.

58. artikulua. Gizarteari kontu ematearen xedea

Gizarteari kontu ematearen xede izango dira:

1. Gobernu Plana eta Lurralde Historikoari eragiten dioten plan guztiak.
2. Onetsitako eta gauzatutako aurrekontua.
3. Obra eta zerbitzuen kontratazioaren gaineko informazioa.
4. Esparru instituzional bakoitzaren mendeko baliabide eta ondasun publikoa eskuratzea edo besterentzea.
5. Herri-kontsulten ondorioz hartutako erabakiak.
6. Herritarrek kontu emateko modukotzat jotzen dituzten bestelako alderdi batzuk.

59. artikulua. Prozedura

Erregelamendu bidez arautuko da kontu ematea burutzeko prozedura bat, sistematikoa, hausnartua, interaktiboa eta unibertuala, zeinak ahalbidetuko duen Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren jarduketaren berri ematea eta jarduketa horiek ebaluatzea.

Laugarren atala: herri-kontsultak

60. artikulua. Herri-kontsulten kontzeptua eta edukia

1. Herri-kontsultaren gaia, edozein delarik ere kontsultaren emaitza, ezin izango da berriz kontsultara eraman planteamendu berdinarekin hurrengo bi urteetan.
2. Herri-kontsultak herritarrek parte hartzeko modu bat dira eta Arabako Lurralde Historikoko herritarrek iritzia eta jarrera adierazteko tresna dira, bai lurralde osokoek bai leku edo eremu jakin batekoek, Aldundiaren eskumen eskusiboaren esparruko gaiei buruz.
3. Herri-kontsultak planifikatzean gizonen eta emakumeen orekaz parte hartzeko behar diren neurriak garatuko dira.

61. artikulua. Herri-kontsultak egiteko ekimena

1. Batzar Nagusiek eta Arabako Foru Aldundiak sustatu ahal izango dituzte herri-kontsultak.
2. Halaber, herri-kontsultak egin ahal izango dira Arabako Lurralde Historikoan erroldatutako pertsonen, baldin eta Lurraldean edo Arabako Foru Aldundiak hartu beharreko politikak edo erabakiak bereziki eraginda den udalerrian edo kuadrillan bizi diren pertsonen ehuneko hamar ordezkatzeko badute. Pertsona horiek hamazortzi urtetik gorakoak izango dira betiere.

3. Kotsultaren xede den gaiak udalerrri edo kuadrilla bati baino gehiagori eragiten dionean, aurreko puntua eragindako lurralde osoari aplikatuko zaio.

62. artikulua. Herri-kotsultak egiteari buruzko erabakia

1. Herri-kotsultak egiteko ekimena Arabako Lurralde Historikoak errol-datutako pertsonak dutenean, Arabako Foru Aldundiak hiru hilabeteko epean ebatziko du ekimenari buruz. Erabakia arrazoitua izan beharko da eta, ekimena ezesten bada, Foru Aldundiak adierazi beharko du zergatik ez duen egokitzat jotzen herri-kotsulta hori egitea. Arrazoi-tako bat izan daiteke emakume eta gizonen arteko berdintasunaren kontra joatea.

2. Edonola ere, Foru Gobernu Kontseiluak herri-kotsulta bat egitea onesteko erabakiak kotsultaren ezaugarri zehatzak jaso beharko ditu. Ezaugarri horiek islatuko dira argiro idatzitako galdera batean edo batzuetan, parte-hartzaile guztiak aldeko edo kontrako jarrera azaldu ahal izan dezaten.

Era berean, adieraziko du zein prozedura tekniko erabiliko den, eragindako lurralde-eremua, noiz egingo den, bai eta egingo den kotsultaren mota dela eta garrantzizkoak diren bestelako ezaugarri teknikoak edo bestelakoak, interesdunak baztertu gabe.

3. Foru Aldundiak hartu beharreko erabaki edo politika baten gaineko herri-kotsulta bat egitea onesteko erabakiak ez du baldintzatuko foru-sektore publikoko erakundeen funtzionamendua eta jarduketa.

63. artikulua. Herri-kotsultetan parte hartzeko zilegitasuna duten pertsonak

Parte-hartzeko deia jaso dezakete kotsultaren xedeak eragindako lurralde-eremuan errol-datutako 16 urtetik gorako pertsona guztiak.

64. artikulua. Herri-kotsulten argitalpena eta emaitzen ondorenak

1. Arau honetan aurreikusitako kotsulta bat eginda, Foru Aldundiak lortutako emaitzak argitaratu beharko ditu, datuak sexuaren arabera xehatuz eta gizonak eta emakumeak agerian jartzeko hizkera bat erabiliz.

2. Herri-kotsulta egiten denetik hiru hilabeteko epean, Foru Aldundiak erabaki bat hartu beharko du zehazteko lortutako emaitzek nola eragingo dioten hartu beharreko erabakiari edo politikari. Zehazki, Foru Aldundiak ebatzi beharko du kotsulta bidez lortutako emaitzek proiektuari uko egitea, proiektua aldatzea edo proiektu alternatibo bat aurkeztea dakarten, ala, ordea, proiektuari hasieran proposatutako musu berean eutsiko dion.

Erabaki hori arrazoitua izan beharko da eta ALHAOn eta Gardentasun Atarian argitaratu beharko da.

Bosgarren atala: herritarren ahalduntzea

65. artikulua. Ahalduntzearen kontzeptua eta xedea

1. Arau honen ondorioetarako, ahalduntzea da gizartearen eta gizartea osatzen duten pertsona guztien gaitasunak sendotzeko eta herritarrek beren eskubideak baliatzeko parte-hartzea sustatzeko prozesu indibidual eta kolektiboak.

2. Arabako Foru Aldundiak ekarpena egin ahal izango die prozesu horiei baliabide espezifikoak ematearen bidez, eta prozesuotan bermatuko da berdintasuneko parte-hartzea eta herritarrek beren ardurara osorik baliatzea. Parte hartzeko zailtasuna duten herritarrentzat erraztasunak emango zaizkie.

66. artikulua. Ahalduntzearen subjektua

Ahalduntzearen subjektu da Arabako Lurralde Historikoan bizi eta ahalduntze-prozesuetan izena ematen duen herritar oro.

67. artikulua. Ahalduentze eskolak

1. "Ahalduentze eskola" deitu ahal izango dira parte hartzeko eskubidea baliatzeko gaikuntzarako prozesuak sustatzea xede duten espazio parte-hartzaileak. Izaera aktiboa, irekia eta hurbila izango dute.

2. Ahalduentze eskolak herritarrek edo instituzioen ekimenez sortu ahal izango dira, ondorengo helburuekin:

a) Sustatzea gizarte-trukeak eta herritarrek lurraldeko gai publikoetan parte hartzeko ideia, gizarte parte-hartzaile bat eraikitzeke helburuz.

b) Prestakuntza- eta sentsibilizazio-prozesuak garatzea, herritarrak eta gizarte-eskumenak duten erakunde parte-hartzaileak aktibatzearen.

c) Gizarte-erabilgarritasuneko azterlanak egitea, Araban parte-hartzeak, demokraziak eta elkarbizitzak dute errealitateari buruz.

d) Herritar aktiboen, gizarte-erakundeen eta instituzio publikoen arteko hausnarketa eta topaketa guneak sortzea eta dinamizatzea.

e) Sendotzea foru-instituzioaren eta herritarren parte-hartzearekin eta elkarbizitzarekin konprometitutako gizarte-erakundeen arteko lankidetzeta.

f) Bermatzea Ahalduentze Eskolak kudeatzeko prozesuak parte-hartze demokratikoko eta gizarte-ekintza prozesuekin aktiboki konprometituta dauden erakunde sozialekin batera egitea.

3. Edonola ere, eskola horiek ondorengo balioen arabera jokatu beharko dute: globaltasuna, demokrazia, parte-hartzea, berdintasuna, kulturartekotasuna, inklusibitatea, elkartasuna, ingurumena, berrikuntza eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengo xedapen gehigarria. Informazio publikoa eskuratzeko eskaerei erantzunez emandako ebazpenen aurkako erreklamazioak.

Gardentasunaren Foru Kontseilua sortzen da, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko erakundeek emandako ebazpenen aurka arlo horretan jartzen diren erreklamazioak aztertu eta ebatzi ditzan. Kontseilu horren osaera eta funtzionamendu araubidea Foru Gobernu Kontseiluak onartuko ditu foru arau honek indarra hartzen duen egunetik hilabete pasatu baino lehen. Kontseiluaren osaerak emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatuaren printzipioa beteko du.

Bigarren xedapen gehigarria. Gardentasunaren eta herritarrek parte hartzearen arloko eskumenak esleitzea.

1. Arabako Foru Aldundiko sailak eta horien jarduketa arloak eta eginkizunak zehazten dituen foru dekretuak sailetariko bati esleituko dio berriaz gardentasunaren eta parte hartzearen arloa koordinatzeko eskumena.

2. Halaber, sailen egitura organiko eta funtzionalari buruzko foru dekretuek zehaztuko dute zein administrazio unitatek hartuko duten foru arau honetan ezarritako eginkizunen ardura.

Hirugarren xedapen gehigarria. Lankidetzeta Arabako Lurralde Historikoko kuadrilla eta udalekin.

Arabako Foru Aldundia lankidetzan arituko da Arabako Lurralde Historikoko kuadrilla eta udalekin, abenduaren 9ko 19/2013 Legean, gardentasunaren, informazioaren eskuragarritasunaren eta gobernu onarenean, edo hura osatzen nahiz ordeztzen duen legean ezarritako betebeharrak garatzeko, laguntza tekniko egokiaren bitartez eta, hala behar denean, hitzarmenak sinatuz.

Laugarren xedapen gehigarria. Diputatuen Kontseiluaren aipamenak.

Arabako Foru Aldundiko kide anitzeko organo gorenaren izena aldatzen da. Aurrerantzean "Foru Gobernu Kontseilua" deituko zaio.

Foru araudiko testuetan "Diputatuen Kontseilua" aipamen guztiak "Foru Gobernu Kontseilua" izendapenez ordeztuta geratzen dira.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Plangintzan eta ebaluazioan arau honetako xedapenak aplikatzeko egutegia.

Egutegi hau ezartzen da foru arau honek plangintzari eta ebaluazioari buruz bigarren kapituluaren arautzen duena aplikatzeko:

a) Arau hau indarrean jartzen denetik bederatzi hilabete pasatutakoan 5. eta 6.1 artikuluetan gobernu planari eta eraginaren alde aurreko ebaluaziori buruz ezartzen diren jarduketak eskatu ahal izango dira.

b) Arau hau indarrean jartzen denetik urtebete pasatu baino lehen Foru Aldundiak ebaluatu beharreko jarduketa publiko adierazgarrien zerrenda zehaztuko du, 6.3 artikuluan ezartzen den bezala.

AZKEN XEDAPENAK

Azken xedapenetatik lehenengoa. Otsailaren 18ko 7/2008 Foru Araua, Arabako Foru Aldundiko Jardueren Erregistroa eta Ondasun eta Interesen Erregistroa arautzen dituen, aldatzea.

Bat. Otsailaren 18ko 7/2008 Foru Arauaren, Arabako Foru Aldundiko Jardueren Erregistroa eta Ondasun eta Interesen Erregistroa arautzen dituenaren, 2. artikulua aldatzen da. Honela geratzen da idatzita:

"2. artikulua. Adierazpenak nork aurkeztu behar dituen

Jarduerei buruzko adierazpenak eta ondasunei eta interesei buruzko adierazpenak aurkeztu behar dituzte diputatu nagusiak eta Foru Gobernu Kontseiluko gainerako kideek, sail, erakunde autonomo eta foru sozietate publikoetako zuzendariak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko fundazioetako zuzendari kudeatzaileak eta foru arau bidez betebehar hori ezarrita daukaten gainerako pertsonak."

Bi. Otsailaren 18ko 7/2008 Foru Arauaren, Arabako Foru Aldundiko Jardueren Erregistroa eta Ondasun eta Interesen Erregistroa arautzen dituenaren, 16. artikulua aldatzen da. Honela geratzen da idatzita:

"16. artikulua. Batzar Nagusientzako informazioa.

Arabako Foru Aldundiak informazio hau emango die sei hilean behin Batzar Nagusiei:

a) Jasotako adierazpenen kopurua, zein motatako adierazpenak diren azalduta.

b) Adierazpena egiteko betebeharra bete ez duten goi kargudunen kopurua eta identifikazioa."

Azken xedapenetatik bigarrena. Arauak sinplifikatzea eta arauketaren kalitatea hobetzea.

1. Gardentasunaren eta segurtasun juridikoaren printzipioen berriazko adierazpen gisa, Arabako Foru Aldundiak bere antolamendu juridikoko arauak berrikusi, sinplifikatu eta, hala behar denean, bateratu egingo ditu, arau esparru laua, argia eta gutxi sakabanatua lortzeko, herritarrek erraz ezagutu eta ulertu ahal izango dutena, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa betetzeko eta hizkuntzaren erabilera ez sexista zabaltzeko behar bezala egokitua.

2. Lege baterakuntzako prozesu horri berehala ekiteko premia dela eta, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketaren, funtzionamenduaren eta araubide juridikoarenak, 62. artikuluan eta hurrengoetan xedatzen duenarekin bat etorritik, Foru

Gobernu Kontseiluari baimena ematen zaio behean azaltzen diren arauak eta horiek aldatu dituzten xedapenak behar bezala erregularizatuta, argituta eta harmonizatuta bilduko dituzten testu bateratuak onar ditzan, foru arau honek indarra hartzen duenetik hasita urtebeteko epean:

- a) 64/1989 Foru Araua, azaroaren 20koa, tasa eta prezio publikoena.
- b) 41/1989 Foru Araua, uztailaren 19koa, toki ogasunak arautzen dituenak.
- c) 42/1989 Foru Araua, uztailaren 19koa, ondasun higiezinaren gaineko zergarena.
- d) 43/1989 Foru Araua, uztailaren 19koa, jarduera ekonomikoen gaineko zergarena.
- e) 44/1989 Foru Araua, uztailaren 19koa, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergarena.
- f) 45/1989 Foru Araua, uztailaren 19koa, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergarena.
- g) 46/1989 Foru Araua, uztailaren 19koa, hiri lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zergarena.
- h) 14/1997 Foru Araua, apirilaren 24koa, Obra eta Zerbitzuetako Foru Plana eta Arabako Foru Aldundiak toki erakundearen obra eta zerbitzuetan laguntzeko bestelako tresnak arautzen dituenak.
- i) 19/1997 Foru Araua, ekainaren 30ekoa, Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsa arautzen duena.

3. Halaber, foru arau honek indarra hartzen duenetik 6 hilabete igaro baino lehen Foru Gobernu Kontseiluak araugintzako teknikari buruzko gidalerroak onartuko ditu. Gidalerro horietan arauen argitasuna eta kalitatea hobetzeko ildo eta irizpide homogeneoak ezarriko dira, horrela arauak ulerterrazagoak izan daitezken.

Azken xedapenetatik hirugarrena. Foru arau honen aplikazio progresiboa.

1. Gobernu Irekiaren Ataria, 4. artikuluan arautzen dena, oinarrizko legerian aurreikusitako moduan erabilgarri egongo da 9 hileko epean, foru arau honek indarra hartzen duenetik aurrera zenbatuta. Gobernu Irekiaren Atariko gainerako edukiak eransten joango dira, eduki horiek atarian jarri behar dituzten subjektuen ahalbide teknikoaren eta aurrekontuko baliabideen arabera.

2. Arau hau indarrean jartzen denetik urtebete pasatu baino lehen berariazko prozedurak arautu behar dira herritarrek parte hartzeko eta laguntzeko baliabideak gauzatzeko.

3. Foru arau honek indarra hartu aurretik informazio publikoa eskuratzeko aurkeztu diren eskaerak, ebatzi gabe badaude, aurkeztu ziren unean aplikagarria zen araudiari jarraituz izapidetuko dira. Betiere diputatu eskudunak ebatziko ditu eskaera horiek, eta, ahal den neurrian, eskuragarritasunik handienaren printzipioa eta foru arau honetan eta oinarrizko legerian ezarritako arauak aplikatuko dira.

Azken xedapenetatik laugarrena. Arauak emateko gaikuntza.

Foru Gobernu Kontseiluari ahalmena ematen zaio foru arau honetan ezartzen dena garatzeko eta betearazteko behar diren xedapen guztiak emateko.

Azken xedapenetatik bosgarrena. Indarrean jartzea.

Foru arau hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

ERANSKINA: Definizioak

Foru-arau honen ondorioetarako, ondorengo kontzeptuak zehaztu behar dira.

Lankidetzeta: Gobernu kolaboratibo batek herritarrek eta beste eragileak inplikatu eta konprometitzen ditu Administrazioaren lanean. Lankidetzeta ez da bakarrik herritarrekin kooperatzea, baita ete enpreekin, gizarte-eragileekin, kolektiboekin, elkarteekin eta lurraldean dauden eragile guztiekin. Horri esker lan egin daiteke administrazio barruan bere langileen artean eta beste administrazio batzuekin.

Herri-kontsulta: Herri-kontsulta herritarren parte-hartzerako mekanismo bat da, pertsonak parte-hartzera gonbidatzeko eta beren iritzia kudeaketa publikoa hobetze aldera emateko

espazio gisa funtzionatzen duena. Ez dio ezinbesteko konpromisorik ekartzen instituzioari, baina bere asmoa bada instituzioaren erantzun bat sortzea. Instituzioak kontsultan sortutako planteamenduetatik eratorritako erantzunak eta konpromisoak txertatu ahal izango ditu.

Ahalduntzea: Prozesu bat da zeinean pertsonak beren gaitasunak, konfiantza, bisioa eta protagonismoa sendotzen duten, talde sozial gisa, bizi dituzten egoeretan aldaketa positiboak sustatzeko. Ahalduntzea talde ahul edo baztertu guztiei aplikatu dakiekeen arren, jatorrian eta ondorengo garapenean emakumeengan gertatu da.

Ebaluazioa: Esku-hartze publikoaren behatze, analisi eta gogoetarako prozesu integrala da, eta helburua da haren diseinua, garapena eta exekuzioa baloratzea, bai eta helburuen betetzea, eragina eta estrategia publikoak hobetzeko behar diren zuzenketak.

Foora: Batzar mota bat da, normalean moderatzaile batek zuzendua, non hainbat pertsonak denen interesko gai bati buruz hitz egiten duten. Ahozko teknika da funtsean, eta taldeka egiten da. Halaber, bada problematika zehatzen inguruan eta mota guztietako gaien inguruan eztabai-datu nahi duten pertsonen arteko trukatzeko-gunea ere. Alde horretatik, foro bat komunikazio-teknika bat da, bai espazio fisiko batean bai inguru birtual batean.

Informazio publikoa: Eduki edo dokumentu bat, edozein formatu edo euskarritan, Arau honetan jasotako pertsonen eta entitateen esku dagoena, eta jarduera publikoarekin edo funts publikoen gestioarekin –zentzu zabalean hartuta– zerikusia duena. Berariaz jasotzen dira definizio honetan prestatze-txostenak eta -agiriak eta kontsulta-organoetatik eratorritakoak, gogoe-ta-batzarretako aktak eta jarduera publikoari zuzenean lotitako barne komunikazioak.

Interoperabilitatea: Informazio-sistemek eta berauek euskarri ematen dieten prozedurek datuak elkartrukatzeko eta haien artean informazio- eta ezagutza-trukaketa ahalbidetzeko duten gaitasuna.

Parte-hartzea: Gobernu parte-hartzaile batek sustatu egiten du herritarrek politika publikoen konfrontazioan aktiboki parte hartzeko duten eskubidea, eta Administrazioa bultzatzen du herritarren ezagutzaz eta esperientziaz baliatu dadin. Beraz, ekintzak bultzatu eta jarduketak bideratzen ditu herritarrek gai publikoetan duten protagonismoa eta inplikazioa handitze aldera, eta indar publikoak herritarrekin gehiago konprometitzen ditu.

Publikotasun aktiboa: 3. artikuluan aipatzen diren pertsonak eta entitateek duten betebeharra, hain zuzen ere beren ekimenez eta Arau honetan jasotako moduan, beren jardueraren gardentasuna bermatzen duen informazio publiko garrantzizkoa jendaurrean jakitera emateko, modu iraunkorrean eta, egiazkoan eta objektiboan.

Gizarteari kontu ematea: Foru-instituzioak kontrolatzeko mekanismo ez elektorala eta bertikala. Bere oinarria dira foru-instituzioen erantzukizuna eta harmena bermatzeko neurriak.

Informazioaren berrerabilpena: Herritarrek entitate publikoen esku dauden datuak eta informazio erabiltzea, erabilpen, produktu eta zerbitzu berriak sortzea aldezteko.

Eskatzailea: Informazio publikoa eskatze duen edozein pertsona fisikoa edo juridikoa. Betezikun hori nahikoa da, hirugarren atalean ezarritakoaren ondorioetarako, interesdun-izaera eskuratzeko.

Gardentasuna: Gobernu garden batek sustatu eta bultzatzen du Administrazioak herritarren aurrean kontuak ematea, eta informazioa ematen du egiten ari denaz eta bere jarduketa-planez. Administrazio publikoek baimendu egin behar dute informazio publikoa modu errazean eta argian eskuratu ahal izatea; hala, herritarrek gobernuaren ekintzaren kontrola egin ahal izango dute, eta balio ekonomiko eta soziala sortu ahal izango dute Administrazioak modu askean emandako datuetatik abiatuta.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsailaren 8a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA